




# ARGIA



2.647 | 2019/06/09 | 3,90 €

**Euskararen aurkako**

**erasoengatik**

**erreparazioa noizko?**

Euskaldunen zapalkuntzaren memoria



**"Bidean geratu direnen mezua helaraztea garrantzitsua da"**  
28 | LIBURU BERRIA



**"Zer ikasi ugari dugu Latinoamerikako nekazarien mugimenduetatik"**  
32 | BEATRIZ CASADO



**Eta, zinea pelikulak baino gehiago balitz?**  
44 | KULTURA



# Hendaiako Sagarno Eguna

**Ekainak 8** Errepublika plazan

Euskal Herriko sagarinoa, bertako sagarrekin ekoiztua



Sagarno, talo eta  
pintxo dastaketa  
18:00etatik 22:00arte

**Bertsolariak: XUMAI MURUA eta ODEI BARROSO**

Txalaparta eta Trikitrixak

## **SAGARDOTEGIAK**

### ARABA

Iturieta-Aramaio

### BIZKAIA

Uxarte-Zornotza

### LAPURDI

Ansoborlo-Hendaia

Talaia-Biriatu

Ihitia-Sara

Camino Berri-Biriatu

Beltzenia-Urruñia

### NAFARROA

Linddurrenborda-Lesaka

### GIPUZKOA

Astarbe-Astigarraga

Ordo Zelai-Oiartzun

Ola-Irun

Petritegi-Astigarraga

## Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | GAIZKI ERRANKA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN

AZALEKO ARGAZKIA:  
ARGIA ARTXIBOA

## Iritziak

- 17 | BALEREN BAKAIKOAZ AZURMENDI
- 18 | IRATI ELORRIETA
- 19 | JOSE IGNAZIO ANSORENA
- 19 | LEIRE NARBAIZA ARIZMENDI
- 20 | JOXERRA AIZPURUA SARASOLA

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:  
CLIPART COURTESY FCIT

## Finkoak

- 39 | DENBORAREN MAKINA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 42 | ARGIA KOMUNITATEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 50 | ZUZENEKO EMANALDIA
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGÍ-KONTRA: AMEL ZAAZAA
- 54 | BERANDUEGI



DANI BLANCO

### 28 | LIBURU BERRIA

Pape Niang eta Mikel Garcia elkarrizketatu ditu Amaia Lekunberrik. Lehenengoak Senegaldik Euskal Herrira egindako bidaia du ardatz Garciaik idatzitako liburuak. Gurean topatutako panoramaz ere hausnartzen du. "Bidean geratu direnen mezua helaraztea garrantzitsua da", diote.

## Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL

**Malaysian haserretu dira: "Españolok, hartu zuen zaborrak eta eraman bueltan etxera"**

Pello Zubiria Kamino

12 | IÑAKI ANDRADAS

**"Bi belaunalditan ikusiko dugu nola desagertuko diren sukaldeak etxeetatik"**

Reyes Ilintxeta

22 | EUSKARA

**Hiztun zapalduak ere behar dute erreparazioa**

Onintza Irureta Azkune

32 | BEATRIZ CASADO BAIDES

**"Zer ikasi ugari dugu Euskal Herrian Latinoamerikako nekazarien mugimenduetatik"**

Z. Oleaga

36 | HEZKUNTZA

**Batxilergoan ere, proiektu bidezko metodologia**

Miel A. Elustondo

44 | KULTURA

**Eta, zinea pelikulak baino gehiago balitz?**

Lur Olaizola

### Jabetza

Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea

### Lehendakaria

Bego Zuza

### Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona

### Diseinua

Maitane Gartzandiia

### Argazkilaria

Dani Blanco

### Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

### Administrazioa:

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

### Salmenta

Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta

### Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

### Web garapena

Asier Iturralde

### Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

### Lege gordailua

SS 837-2012

### ISSN

0213-909X

### Batzorde parekidea

72562 E

### GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

#### Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria  
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa  
Xalbardin baita. 64122 Uruñea

#### Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina  
31001 Iruñea

### Posta elektronikokoak

komertzial@argia.eus

harpide@argia.eus

### Telefonoa

943371545

Ametzagaiña taldeko kidea da  
Argia honako enprekin batera:

**antza**  
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

**iametzta**  
interaktiboa

**ADUR** software  
productions

## Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuk lizentzia hau ez izatea.

**OLATUKOOP**

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNDUA)





## Eusko Jaurlaritzaren borroka armatua

"Gure gain hartu ditugu giza eskubideak babesteko konpromisoa eta erantzukizuna", dio Eusko Jaurlaritzak, Bizikidetzarako idazkari Jonan Fernandez buru. Bien bitartean, Euskal Herrian, diru publikoz sortutako hegazkinen bonbek kurduen, palestinarren edota yemendarren gorputzak odolusten dituzte. Demokratikoki. Biolentzia oro arbuiaigarria da. Baina Sapa, Sener, ITP, Aernnova, Turbomeca, Dassault eta industria militarrek gurean dituen enpresen bitartez, 500 milioiko irabaziak eta zenbait lanpostu sortzen baditu, orduan, ba, zera... begira euskal porru bat! Irudian: Eusko Label produktuen azoka tradizionala, mugimendu antimilitaristak eta internazionalistak Gasteizen antolatuta.

AXIER LOPEZ  
MIKEL GARCIA IDIAKEZ

JOKIN AP







# “Neure buruari bizia kentzea erabaki dut politikari batzuen arduragabekeria kriminala salatzeko”



**LANDER ARBELAITZ MITXELENA**

**T**itularreko esaldi horrekin hasten da *Erraustegiaren lehen biktima naiz* izenburupean pertsona batek maiatzaren 15ean bere buruaz beste egiten saiatu aurretik idatzitako gutuna. Maiatzaren 31n eskuratu du ARGIAk, berak propio bidalita.

Zubietan eraikitzen ari diren erraustegitik 10 kilometroko erradioan bizi da. Bere burua oso larri zauritu zuen labanaz, hainbat zauri eginez. Suizidio saiakera hau ez da heriotza izan, gutuna jaso zuen bere lagun batek larrialdietara deitu zuelako. Medikuek bere etxera joan zirenean pultsurik gabe aurkitu zuten, ia odolustuta. Halere, berpiztea lortu zuten eta urgentziaz ebakuntzak egin dizkiote. Egun errekuperatzen ari da Donostiako psikiatrikoan.

Pertsona hau oso kezkatua zegoen Zubietan eraikitzen ari diren erraustegiak isuriko duen kutsadurak inguruko herritarrengan izango duen eraginarekin. Urteak dira Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak egindako deialdietan parte hartzen duela.

“Bizia kendu dut ez dudalako aurrez pentsatuta eta azpikeriaz exekutatuak krimen hau ikusi nahi. 2050ean lurra pozoitzearen ondorioak ikusiko dira, baina agian beraiek ere hilik egongo dira eta ezingo zaizkie kontuak eskatu”, zioen. Ondoa gutuna osorik irakurgai, euskaratuta.

## *Erraustegiaren lehen biktima naiz*

**N**eure buruari bizitza kentzea erabaki dut, maite ditudanengan samin eta hutsune handia eraginez, ez dudalako modu hoberik aurkitzen salatzeko gizarte honetan gehiengoak lortzen dituzten politikari batzuen arduragabekeria kriminala. Gizarte hau bere buruaz beste egiten ari da hainbeste haragi triapakada, hainbeste auto partikular, dragoen telesail, komunikazio birtual eta munduaren bestaldera hegaldirekin.

Ezin dut gehiago jasan hipokresia, injustizia, beren borondate santuaren inposizioa eta manipulazioa. “Gestore handi” hauek herritarrak kondenatu dituzte pozoitze mantso eta agonikora, eskura dituzten komunikabide eta desinformazio bide guztiek.

Ez dute aski hainbat ikerketa epidemiologiko eta ekonomikok frogatu izana zein kaltegarri eta patogenoa den hondakinak erretzea. Ez zaie aski milaka pertsonaren erresistentzia baketsu eta irudimentsua. Ez zaie aski alternatiba merkeagoak izatea, lanpostuak sortzen dituztenak gainera. Beren irabazi sektario eta alderdikoian baino ez dute pentsatzen. Jakin badakiten arren herri eta hiri osoak zigortzen dituztela.

Neure buruari bizitza kendu diot ez dudalako aurrez pentsatuta eta azpikeriaz exekutatuak krimen honen lekuko izan nahi. 2050ean ikusiko dira lurra kutsatzearen ondorioak, baina agian beraiek ere hilda egongo dira eta ezingo zaizkie kontuak eskatu. Etorkizuneko belaunaldiak dira herentzia beltz hau jasoko dutenak. Konfiantza dut, bestalde, elkartuko direla horrela deitzea merezi duen bizitza duina lortzeko.

Gogobeteta noa, modu baketsuan saiatu izan bainaiz arduragabe hauek zentzua berreskuratu zezaten, hazkunde infinito-ezinezkoaren miresleek, beren jubilazioa finantzatzen duten enpresa handi eta alderdi politikoek. Baina ikusirik ez dutela entzuten eta boterearen praktika autoritario eta inhumanoari emanda daudela, pertsonen ongizatean pentsatu gabe, joatea erabaki dut jabetzen banaiz ere osatu ezina den mina, sufrimendua eta hutsunea utziko dudala gehien maite ditudanengan. Barkamena eskatzen diet horregatik. Muxu bat. Ondo izan.

Oharra: Agian esango dizuete fama txarreko ero bat naizela, baina horrek ez ditu ezeztatzen hondakinak erretzearen aurka ematen diren arrazoi anitzak.



# Mapak



SANTI LEONÉ

**B**eharbada lehenago izanen ziren, baina hauteskondeak ailegatzearekin batera erreparatu diet nik sare sozialetan. Mapak. Espainiako mapak hain zuzen ere, hauteskondeetako emaitza orokorrak edo alderdi jakin batek izandakoak erakusten dituztenak. Bi koloretan izaten dira normalean: kolore batek Galizia, Hego Euskal Herria eta Katalunia hartzen ditu, eta bigarrenak, Estatuko gainerako lurraldeak. "Hego Euskal Herria" idatzi dut, baina zenbaitetan EAE izaten da; are gehiago, tarteka hirugarren kolore bat gehitzen dio Nafarroak irudiari; eta "Katalunia" idatzi dut, baina horren etiketapean Printzerria ulertu behar genuke, maiz Valentziak eta Balear Uharteek Espainia espainolaren kolorea hartzen baitute.

Ikusi dudan hondarreko mapak, adibidez, Voxen emaitzak erakusten zituen: boto kopuru ttikiena aipatu hiru herrialde horietan –Nafarroa eta EAE bat eginik honetakoan, Valentzia eta Balear Uharteak Espainia aldera lerratuak– lortu baititu. Bertze mapa zenbait bezala, honek ere hausnartzeko gonbidapena zekarren. Aski hausnarketa gidatua: zeinek eman dion botoa faxismoari eta zeinek ez, eta, ondorioz, gora gu eta gu bezalako demokrotak.

Bertzelako irakurketak ere posible dira, nire ustez. Adibidez, Espainia "jokoan" dagoen tokietan, eskuin espainolistak bada kiela pragmatiko jokutzen, eta hark baino indar handiagoa biltzen duten bertze aukera unionista batzuei ematen diela botoa. Bertzalde, Vox ez da gorrotoaren adierazpen bakarra, plataforma digitaletako zenbait erantzunetan ikusten den bezala.

Datueta oinarritzen diren heinean, mapa horiek zer pentsatua eman beharko liguketen tresnak dira. Baina helburua baldin bada zeinen onak garen erakutsiz plazera ematea, orduan alferrik ari dira datuak biltzen. Onanismoarako aukera eraginkorragoak eskaintzen ditu sareak aspalditik. ●



## "BI ABORTU IZAN NITUENEAN, PETRONOR ZALANTZAN JARTZEN HASI NINTZEN"

### SARA IBAÑEZ, MEATZALDEA BIZIRIK TALDEKO BOZERAMAILEETAKO BAT

Ibañezen hitzetan, hasieran ziurtzat jotzen zuten findegi batek segurtasun neurri guztiak ondo beteko zituela eta kontrolaturik zutela, "baina Petronor zalantzan jartzen hasi nintzen bi abortu izan nituenean, bata 1992an, eta emaginak esan zidan haurdun geunden emakume guztiak aldi berean abortatu genuela. Ezin da aurkitu kausa-efekturik, baina 35 urtez eskualdeko emakumeen osasuna kontrolatzen igaro ondoren, beti izan dut susmoa, baita datuak ere, osasun arazo gehiago ditugula".

**HOR DAGO-EL SALTO (2019/05/28)**





## Gure industria militarra birmoldatu behar da



JUAN MARI ARREGI

Europako Parlamenturako hauteskunde garaia igaro da eta inork ez du industria militarri buruzko aipamenik egin, ezkerreko alderdiek ere ez, nahiz eta Europar Batasuna bultzatzen ari den ejertzitoaren atzean hori egon. Legegintzaldi honen lehentasunetako bat gudaroste hori osatzea izango da, duela gutxi txoko honetan genioenez. Milioika errefuxiatuaren ihesa eragiten ari diren gerran atzean ere industria militarra dago –asko Euskal Herrira iristen ari dira–. Industria horrek Europan 284.000 milioi dolar gastatu zituen 2018an.

Joan den astean Gasteizen egin bezala, kolektibo sozial xumeek gogorarazi dute Euskal Herrian ehundik gora enpresa ari direla beren produkzio osoa erabilera militarreko bideratzen, eta Saudi Arabia, Turkia, Israel, Egipto eta antzeko herrialdeetara bidaltzen dituztela armak. Instituzioek utzi behar lioke te industriari ospea emateari, “heriotzaren tratulariei” baino ez baitiete mesede egiten, kapitalismoaren adierazgarri. Alderdi politikoez, bizitza defendatzen badute eta ezkerrekoak direla badiote, presionatu beharko lukete armen lasterketa amaitzeko, ondorio hilgarriak baitaizka milioika lagunentzako.

Antimilitaristek diote lanerako daukagun eskubideak ezin duela egon pertsonen bizitzeko eta aske izateko eskubidearen gainetik. Horregatik, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak industria militarra birmoldatzeko prozesua hasi behar lukete, sektoreak soilik erabilera zibilerako diren materialak ekoitzi ditzan. Eta bide batez, gerratik ihesi datorren jende guztia modu eraginkor batez lagundu behar lukete erakundeok: “Gure lehergailuak haien exodoaren erantzule badira, aterpea izango duten hiri eta herriak eraikitzeko bete-beharra daukagu”. ●

## Analisien analisisia



MIKEL ASURMENDI

Zer uste zenuten, iratzartzen zinetenean ez nintzela hor izango?, gaztigatu zizun Panoramako ilustrazioak. Panorama politikoari irudia jartzen dio astero Adur Larreak. Augusto Monterrosoren “*Cuando despertó, el dinosaurio todavía estaba allí*” mikroerralatoak legez, giza historia –mundu erraldoi politikoa– islatu zizun berak ere.

Europako Parlamentuko, Espainiako foru eta udaletako gobernuei buruzko analisiak ilustratu zituen oraingoan. Azken bi hilabeteetako hauteskudeek hamaika analisi eta iritzi iradoki dituzte: “Europan eskuin muturra gora, ez inkestek esan adina”. “EAJ-PSE aliantza indartua atera da. EAJ-PSE nagusi eta eroso”. Podemos kolpatua, EH Bildu pozarren”. Hala ere, “EH Bildu eta Podemos ezkerreko alternatiba osatu ezinean”. “Geldiarazi da eskuin muturra, oraingoz”. “Chivite lehendakari?”. “Independentismoa sendotasunez Katalunian”. “Madriren dute giltza”.

Gurean idatzitakoez beste, halatsu beste hedabideetan ere, zeinek bere ideologiaren (h)arian. XXI. mendean giza historiaren amaiera heldu omen da? Edo zen? Hots, ideologiaren aroa amaitu zen. XX. mendera bitarteko “gizona” azkendu zen. Azkendu al da? Bestelako pertsonarik jaio al da? Bai ote!?

Ez dut ikusten. Hemen eta munduan funtsean “ideologia” da gailendu. Mundua ideia politikoen –ekonomiaren– arabera eraikia da. Hautatzen ditugun politikarien ideien arabera, eta haiek berriz, munduko ekonomia –eta gerra– ezartzen dutenen arabera, hots, G7aren, FMiren edo multinazionalen aginduen arabera.

Komunismoak porrot egin ostean, ez du soilik kapitalismoak agintzen, ez soilik neoliberalismoak ere. Ez gara soilik kapitalismoaren arabera bizi –kapitalismoaren pean esatea, gehiegitsu zait–. Lenin, Mao, Stalin eta abarren komunismoarenak (Marx alde batera) egin zuen, goiti-behetiko –bertikaltasunak– aginteak alegia. Orain horizontaltasunak libreago egiten omen gaitu. Bai ote? Bai zera!

Anaia Handiak bizi gaitu. Ez imajinatu soilik AEBak, arren –munduko jendarme nagusia soilik–. Agintea duen nonahikoak gara. Ez dugu nagusien beharrik, ez hierarkiarik ere. Nork bere etxean du anaia handia. “Arreba”-ren esperantzaz...

Neurokapitalismoak bizi gaitu (irakur, ARGIAKO LARRUN#242, Gorka Bereziartuak idatzia). Eta ez neurokapitalismoak soilik, neurointernetek eta neuro-saresozialek bizi gaituzte, neurokazetaritzak bizi gaitu.

Europako, Estatuko eta Foruetako hauteskudeak izan dira, baita udalerrikoak ere. Demokrazia herri mailan gauzatu daitezkeen esperantzak bizi nau. Esperantza ere gaitza izan daitekeela jakitun, andreen eta gizonen oinazea luzarazten baitu. ●





JON URBE / FOKU

## GLADYS DEL ESTAL GOGOAN

**EUSKAL HERRIA.** Ekainaren 3an 40 urte bete dira Gladys del Estal guardia zibil batek tiroz hil zuela Tuteran, jaialdi nuklear baketsu batean zela. Ekitaldi ugari egin dituzte haren omenez, Iruñean, Tuteran eta Donostian. Argazkian, Donostiako Kristina Enea parkeari izena aldatzen. Ekintzailea hil zuen José Martínez Salas guardia zibilak gutxieneko zigorra jaso zuen eta ondoren bi aldiz kondekoratu zuten. Gladys gogoan ekimenak azaldu duenez, "egindako injustiziaren aitormena eta bere memoriaren erreparazioa nahi dugu".

## Osakidetzako iruzurrak zeresana ematen jarraitzen du

**ARGIA**

### SALAKETA

Maiatzaren 28an, Marta Macho Arrasateko ospitaleko anestesistak eta ESK sindikatuko Patxi Nicolauk epai-learn aurrean berretsi zuten Osakidetzako lan eskaintza publikoko azterketen inguruan egin zuten salaketa. Beraiez gain, Gasteizko epaitegietan izan dira IVAP Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko bi teknikari, oposizioetako azterketak erakunde horrek egin baitzituen.

### KONTRATU ETETEA

Maiatzaren 29an, anestesistari kontratua eten ziotela salatua zuen ESK sindikatuak. Debagoienako ospitaleak Machori komunikatu zion maiatzaren 31n bere kontratua eten egingo zutela. Ordezkapen kontratua zeukan anestesistak eta lanaldi murriztua zuen langile baten ordezkari zen. Sindikatuaren ustez iruzurra salatzeagatik hartutako neurria izan da, Osakidetzaren barne araudiaren aurkakoa, eta kritikatu zuten Machori dagokion behin behineko lan kontratu bat beste langile bati esleitu ziotela.

### ATZERA

Bi egun geroago, atzera egin eta maiatzaren 31 goizean jakinarazi zion Osakidetzak Machori lana berea dela.



## AGROTOXIKOAK

# 197

agrotokiko berri baimendu ditu Brasilgo Gobernuak, Jair Bolsonarok agintean daramatzan bost hilabeteetan.

Dilma Roussefen Gobernuaren azken urtean (2015) **139** produkturi eman zien baimena Gobernuak. 2018an **450** izan ziren, eta 2019ko bost hilabete hauetan **197**. Brasil agrotokikoen kontsumitzaile nagusietakoa da munduan.



**SEXU ERASOA.** Laudioko osasun zentro pribatu batean gertatutako eraso matxista salatu du Aiaraldeko Mugimendu Feministak. Baimenik eta azalpenik eman gabe, barruko arropa kendu eta bagina ukitu zion fisioterapeutak emakumeari. "Ez dut nik bizitakoa beste inork jasaterik nahi".



**OPERAZIO URBANISTIKOIA.** Bilboko Cervantes eskola publikoko guraso elkarteak salatua duenez, Bilboko gotzaindegiak negozioa egin nahi du Abandon daukan orube batekin eta Udalak operazio urbanistikoa babestu du, aldatu egin baitu lurren erabilera-mota. Mutualiari saldu dio Gotzaindegiak orubea.



**11/13 AUZIA.** Irailaren 16an hasiko da euskal presoaren eskubideen defentsan aritutako 47 euskal herritarren kontrako epaiketa Espainiako Auzitegi Nazionalean. *IrtenBide-ra. Giza eskubideak, demokrazia, etorkizuna* dinamikaren barruan manifestazio handi bat antolatu dute irailaren 14rako, Bilbon.



# MALYSIAN HASERRETU DIRA: “ESPAINOLOK, HARTU ZUEN ZABORRAK ETA ERAMAN BUELTAN ETXERA”

Txinak 2018an bere portuak itxi zizkienean atzerriko plastiko zaborren inportazioei, mundu osoko birziklatze industria murgildu zen kaosean. Asia urruneko beste herrialdeetarako zabor garraioak ugaritu ziren, baita erreakzioak eragin ere. Malaysiak plastiko birziklaezinak itzuli dizkio Espainiari. Filipinetatik Rodrigo Dutertek mehatxu egin dio Kanadari, edo zuek eraman ekarritako zaborrak edo geuk zuen kostaldera eraman eta hondoratuko ditugu.

## PELLO ZUBIRIA KAMINO

**Y**eo Bee Yin Malaysiako Ingurumen ministroak maiatzean bertan ohar-tarazi zuen: “Herrialde garatuak dira bidaltzen dizkiguten gaien erantzule”. Ez zen soilik ari AEBez edo Australiaz, Espainiako ustezko birziklatze konpainia batek –ez dute aipatu izenik– bidalitako bost kontainer bete zabor berriro Europara bidaliak zituzten malaysiarrek, legez debekatutako gaiak dirrelakoan. Alegia, kontrabandoz sartuak, gauza bat –plastiko birziklagarriak– daramatela deklaratu eta oso bestelako bat –plastikozko zabor birzikla ezinak– utzi.

Hannah Ellis-Petersen *The Guardian*-en eskualde hartako korrespondent-salak azaldu duenez, “azken aldian mundu osoko zaborrak bideratu dituzte Asia Hego-Ekialdera, Mendebalde aberatsean nahi ez dituzten zakarrez betetako edukiontziz bete arte Filipinak, Indonesia eta Vietnamgo portuak, Malaysian hedatuz AEBetatik eta Europatik bidalitako plastikozko zaborregi toxikoak”.

Hartzaileak nazkatu dira, antza, eta alderantzizko bidaien berriak zabaldu dira orain, Asia Hego-Ekialdeko herrialdeak hasi direla zakarrak beren jabeei bueltatzen. Thailandia, Malaysia eta Vietnamek dagoeneko lege berriak ebatzi dituzte norabide horretan.

Maiatzean Filipinetako lehendakari Rodrigo Dutertek mehatxu egin zion Kanadari, harreman diplomatikoak etengo zituela baldin eta Otawako gobernuak ez bazuen onartzen berriro etxeratzea 69

edukiontzi barruan zeramatzen 1.500 tona zabor eta guzti, 2013 eta 2014 artean kanadiarrek Filipinetara eramana. Ez hori bakarrik, Kanadak ez bazuen hori fite egiten, filipinarrek berek eramango zituztela zaborrok Kanadako kostalderaino eta han urperatuko: “Filipinak nazio burujabe independentea da eta beste ezein naziok ez du erabiliko zaborra bailitza”.

Ezinegonaren iturburua iazko martxoan ARGIAk honela laburbildu zuen: “*Pekinek Mendebaldeari esan dio: ‘Ito zaitezke zeuen plastiko zikineta’*”. 2018ko urtatsez, Txinak 24 motatako hondakinen inportazioa debekatu zuen. Biharamunetik European eta Ipar Amerikan gainezka zeuden teoriar birziklagarriak diren hondakinen biltegiak eta ez agintariak eta ez enpresek ez dute asmatzen epe laburrean zer egin, batik bat plastiko hondarrekin, mundu osoko zabor esportazioen erdia Txinak hartu baitzuen.

Txinak bere portuen sarbidea itxirik, beren zaborrentzako leku bila ero moduan hasi ziren Mendebaldean kontrata publikoetan ari diren multinazional handiak, diru publikoz ordainduta hondakinen kudeaketa eskuetan daukatenak. Asia Hego-Ekialdeko beste herrialdeetara jo zuten, zaborrez zamatutako baporeak tartean pasatuz Hong Kongetik, hurbil dagoelako eta zerga paradisu bat izateagatik.

Zakar uholdearen tamaina ulertzeko, Malaysia, Greenpeacearen datuen arabe-

ra, plastikozko zaborren inportazioan pasatu da 2016 osoan 168.000 tona jasotzetik 2018ko lehen sei hilabeteetan –urte erdian– 456.000 jasotzera, gehienak Alemania, Espainia, Frantzia, Australia eta AEBetatik iritsiak.

“Asko dira uste dutenak –idatzi du Ellis-Petersenek– ez dagoela beste modurik Mendebaldeko herrialdeak behartze-ko beren arazoei aurre egitera, garapen bidean herrialdeei zama pasatzeko orde”.

## **XAHUTZAILEEN KONTRAKO HASERREA**

Birziklatze aitzakian zabor kontrabandoan aritzeko, konpainiek Basileako 1989ko itunak ezarritakoari iruzur egiten diote. Itun hartan NBEk debekatu zuen zabor arriskutsuak herrialde txi-roetara bidaltzea, baina askotan “gai birziklagarriak” etiketatuta deklaratu ezportatzen dituzte.

Hain zuzen, maiatzean bertan Genevan antolatutako biltzarrean egin dizkio-te berrikuntza batzuk Basileako itunari 180 herrialdeetako buruen oniritziz: plastiko arriskutsuen atala sortu dute. Orain arte plastikoak atal bakarrean bazeuden, hemendik aurrera plastikoak izango dira edo arriskurik gabeak, arriskutsuak edo bereziak.

Asteotan zabaldu diren albisteek erakutsi dute industriak –agintarien eta unibertsitario askoren konplizitatez– ezkututzen duen *iceberg* erraldoi baten punta. Gauza da munduan industriak





#### KANADARI OIHUKA

FILIPINETAKO MANIFESTAZIO  
BATEAN. BANDEROLAN DIO:  
"KANADA, BETE BASILEAKO ITUNA.  
ERAMAN BERRIRO ZURE ZABORRAK".

ekoizten duen plastiko guztiaren %9 baizik ez dela birziklatzen eta gainerako askok bukatzen duela urruneko herrialdeetan lurreko zabortegietan pilatuta edo ez lege eta ez kontrol erreta, ke oso pozoitsuak aiereratuz.

Ingurumenari lotuta gai asko *trending topic* diren arren Mendebaldean, industriak eta kontsumo masiboak sortutako kutsadurak gehien nozitzen dituzten herrialde txiroetako protesta mugimenduen berri gutxi iristen da AEBetara edo Europara.

Aurten bertan protestak izan ziren Indonesian ere, jakin zelarik Batamgo portuan bost hilabete zeramatzatela pilatuta 60 edukiontzi hondakin toxikoz beteak. Yuyun Ismawati BaliFokus/Nexus3 elkarteko kideak deklaratu zuen: "Honek amaitu behar du. Hipokresia handiz herrialde aberatsenek beren bu-

ruak famatzen dituzte munduaren aurrean hondakin kudeaketa onak dauzkatela erakutsiz, eta bitartean gu pozoitzen gaituzte eta gainera kutsatzailatzat salatzen. Lotsagabeak! Zatozte zuen zikinak garbitzera eta eten ezazue hainbeste zabor sortzea".

Apirilean GAIA Errausketaren Aurka-ko eta Alternatiben Aldeko koalizioak, afera Hegoaldetik nola ikusten den azaldu zuen dossier oparo batean: "*Discarded. Communities on the frontlines of the global plastic crisis*" (Zaborretara jaurtiak. Plastikoaren krisi globalaren frontearen ari diren jendarteak).

Ez ekologismoan edo injustizien kontrako borroketan ari diren mugimenduetako kideak, klase guztietakoak aurkitzen dira beren bizimodua defendatzeko beharrean. Idatzizko edo kaleko protestez gain, teknologia berriak eta sare so-

zialak erabiltzeko gai direnak, zabortegi ez legezko edo sasi-birziklatze lantegiak drone bidez aurkitu eta fotografiatuz, *Google*-n mapeatuz, eta abar. Menturaz oihartzun horrek behartu ditu gobernuak zerbaitetan ari direla erakustera.

Bestalde, liskarrak ugaritu dira urrutitik zaramari dirua ateratzen diotenen eta kutsaduraren kalteak nozitzen dituzten artean, urte gutxitan ikusi baitute beren bizi kalitatea okertzen. Gatazkak hildakoak ere eragin ditu.

GAIAren dossierrean atzerriko zaboreren erreketa gaixotu duten Thailandiako nekazari batek mezu hau zeukan esateko Mendebaldeko jendeei: "Harroak zarete. Ez itzazue bota zakarrak zuen herrialdetik kanpora. Zuen zaborrak dira eta badakizue toxikoak direla. Zergatik pilatu behar dituzue Thailandian?". ●

**ZINKUNEGI OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com

f i





## BI BELAUNALDITAN IKUSIKO DUGU NOLA DESAGERTUKO DIREN SUKALDEAK ETXEETATIK



Bertako sukaldaritzari astindua eman nahi dio Iñaki Andradas sukaldariak, eta ikusten denez, bere proposamenek ez dute inor epel uzten. Sanfermin hauetan festa jateko moduan eskainiko digu Mikel Urmeneta marrazkilariarekin batera abian jarri duen denda berrian.

 REYES ILINTXETA

 DANI BLANCO

### Nola definituko zenuke zeure burua?

Ni *gastrozoro* bat naiz, gaztelaniaz *gastro* nagoela esan ohi dut. Gustuko dudana sortu nahi dut eta hortik datorkit indarra. Orain sukaldari banaiz ere, ez dut bazterrean uzten etorkizunean beste sormen bide batzuk jorratzea. Orain sukaldearekiko dudana grina erabatekoa da. Ez dakit zergatik, baina bada zerbait poz ikaragarria eragiten didana, eta egunero, esnatzen naizenean, ilusioz ekitera bultzatzen nauena. Bestalde, eztabaida eragitea ere gustatzen zait. Nik egiten dudana jendeari edo asko gustatzen zaio edo batere ez. Nahiago dut hala izatea, oharkabean, jatetxe bat gehiago bezala, pasatzea baino. Amodioa edo gorrotoa, bi muturrak maite ditut, eta neu ere, nolabait, horrelakoa naiz.

### Nola hasi zinen sukaldean?

Txikitan izugarri maite nuen amona Sararekin sukaldean aritzea. Horregatik

bere izena daramat beti uniformearen lepoan brodatua. Nire familian beti ongi jatearen printzipioa irakatsi didate eta McDonald's-era inoiz eraman ez zaituzten gurasoak izatea zorte ikaragarria da. Beti kalitatea lehenetsi dute eta horrek fruitua eman du.

### Onenekin trebatzeko aukera izan duzu.

Bai. Donostiako Luis Irizar eskolan ikasi nuen eta gero Zuberora, Arzak, Urepel, A fuego negro, Europan... izan naiz. Euskal Herrian sukaldari handi askorekin aritu naiz praktikak egiten eta zoragarria izan da. Oso urte trinkoak baina ikaragarriak.

### Nola sortu zen Baserriberrí?

Orain dela hiru urte talde bat osatu genuen Luken Vigo sukaldariak, Oihane Larrañegui kudeatzaile eta bazkideak eta hirurok, eta bestelako taberna-jatetxe bat zabaltzeko proiektua abiatu genuen. Gainera, Cocuus, (Creative

Kitchen Engineering System) enpresarekin hasi ginen lanean hasiera-hasieratik eta haiei esker lortu dugu teknologia berritzaileena erabiltzea gure sormeneko sukaldaritzara indartzeko. Oso talde ona osatu dugu eta pozik gaude.

### Zertan datza teknologia berritzailea?

Gure sukalde-laborategian daukagun tresna bereziak 3Dko inprimaketak egiteko aukera ematen digu, grabatuak edo zehaztasun handiko mozketak, besteak beste, eta emaitzak ikusgarriak dira. Elikagaien industriarako ikerkuntzan ari gara lanean Zizurren dugun ikerketa zentroan eta nazioarteko enpresa handiekin gaude harremanetan, hori delako etorkizuna.

### Sanferfood Iruñeko Estafeta kaleko denda berrian proposatzen duzuen ere bide horretatik doa?

Hala da, bai. Mikel Urmenetaren irudimena eta nire sormena elkartu ditugu









## GAUEZ, ETA BAKARRIK

“Kudeaketa lana dudanez, gero eta denbora gutxiago dut sukaldean lasai ibiltzeko. Batzuetan gauzez etortzen naiz eta hemen egoten naiz bakarrik, janaria prestatzen, zerbait edaten eta musika entzuten nire harrikadekin. Li-luragarria da niretzat”.

opari jangarriak egiteko eta pasio handiz ari gara. Oraindik ez dakigu zehazki nola-ko eskaintza egingo dugun eta, egia esan, hau bezalako denda bat zabaltzea, oso ongi jakin gabe zer saldu behar den, *frikeria* ausarta da.

Erraldioen aurpegiak dituzten gailetak edukiko ditugu, Nafarroako potxa uzker-tiak, zezenki gisatuaren potoak, “Mierdiendak” eta zezen haragiz egindako saltxitxak. Saltxitxa horri *Bull-dog* deitu diogu eta zezenki ekologikoz egina dago. Edozeinen gustukoa izan daitekeen produktua nahi dugu. Mikelekin ikasi dudana gauzetako bat da Iruñea oso hemengo delata, oso itxia. Txapela oso sartuta du eta askotan ez digu harago ikusten uzten. Ideia bat ona bada Toronton, Tokion eta Bogotan, ideia ona izango da munduan eta arrakasta izango du toki guztietan. Aldiz, egiten baduzu zapi gorri jangarri bat, ez duzu arrakastarik lortuko munduan, erreferenteak bestelakoak direlako.

**Nola elkartu zarete halako bi figura?**  
Duela bi urte inguru txuletoi dastaketa

batean ezagutu nuen Mikel Urmeneta. Amodio modukoa izan da. Bera ni baino artistagoa da eta argi dut ez dudala bera bezalakoa izan nahi, baina jenio bat da eta asko lagundu dit.

Bestalde, izugarria da berarekin eta Mikel Goñi pilotariarekin gertatzen ari dena. Benetako mitoak dira eta jendeak hamai-ka istorio kontatzen ditu haien inguruan, batzuk egiazkoak eta beste asko asmatutakoak. Hollywooden filma bana izango lukete, seguru!

**Eskuzabalago izan behar dugu zapore berrien aurrean?**

Zalantzarik gabe. Elikagaien industria berritzea eta zapore *millennialak* sortzea beharrezkoa da. Globalizazioak, besteak beste, eragin du 20 urteko gazteek jada hiru herrialde ezagutzea. Nire aitona-amonak Zaragozara joan ziren eztei bidaiari. Nire gurasoen garaian Benidorm edo Italia izaten ziren aukerak eta orain gazteak Thailandiara joaten dira. Txikia nintze-nean lehen jatetxe txinatarra zabaldu zuten hemen eta harrigarria izan zen. Gaur



egun, aldiz, denok gaude ohituta curry eta arrain gordina jaten, eta jendeak gauza berriak nahi ditu. Iruñeko Indara aretoan hori lortu nahi dugu: musika ona uztartu mundu zabaleko zaporeekin anoa eta pintxoetan.

### Nola daramazu hainbeste tokitan aritzea aldi berean?

Oso lo gutxi egiten dut. Ez naiz oso pertsona serioa. Han eta hemen ibiltzen naiz bileretan, sukaldaritzaren ekimenetan parte hartzen, bidaiatzen... ez naiz gel-dirik egoten eta horrela ibiltzea asko gustatzen zait. Horregatik baloratzen dut horren lantalde ona izatea aldameanean. Enpresaria izateak eragiten duen kostu pertsonala oso gaizki daramat. Lankide izatetik nagusia izatera pasatzea nazkagarria da. Halere, Baserriberrin saiatzeko gara ostalaritzan horren ohikoak diren langileen lan baldintza tamalgarriak hobetzen.

Neure buruari ez diot proposatu aberastea, porrot ez egitea baizik. Proposamen asko ateratzen zaizkit, baina oso ongi aukeratu behar dira bidaideak. Beti lan egin izan dut 55 orduetik gora astean, baina hemen mundu guztiak fitxatzen du, eta astean 38 edo 40 ordu egiten ditu, eta horren gainera zerbait bada aparteko ordu bezala ordaintzen da. Argi daukat ongi jaten den toki atsegin bateko langileek ere ongi eta gustura egon behar dutela. Hori lortzea oso zaila izan da guretzat, enpresa txiki bat martxan jartzen duzunean laguntzarik apenas duzulako, eta langile oso gutxi kontratatatu dezakezulako lan ikaragarria egiteko. Batere sosik ez nuela hasi nintzen eta oso harro nago hiru urtean noraino iritsi garen ikusita. Lantalde zoragarriari esker izan da. Haiek gabe ez naiz ezer.

### Zer eskaintzen duzue besteek ez dutena?

Unean bertan eginiko pintxoak, astero plater berri bat, eta zortzi asteoro menu berri osoa. Inork ez daki zer bazkaldu behar duen eta guk nahi duguna ematen diogu. Bezeroari esaten diogu: "Etorri hiru aldiz eta ez bazaizu gustatu ez itzuli". Beste taberna guztiak oso antzekoak dira. Denek dute karta, menua eta patata tortilla. Patata tortillarik ez duen

taberna bakarra gara. Ez dut nahi. Baiditut pintxo gutxi batzuk barra gainean, baina nire aitarengatik. Astun hutsa da eta ez du ulertzen barra hutsik egotea. Nire burua lasaitzeko egiten dut.

### Zuen pintxoekin batera datorren istorioa da haien arrakastaren gakoa?

Bai. Errelatoa ezinbestekoa da. Zaporea dastatuz jatea funtsezkoa bada ere, zerbait kontatzea, emozio bat piztea oso garrantzitsua da. Andoni Luis Aduz, jenioen artean jenioenak, esaten du badela seigarren zapora bat, ingurutik hartzen duzuna: giroa, nola jartzen dituzten jatekoa, testuingurua... eta ados nago ehuneko ehun.

### Istorioko kontsumitzaile nekaezinak gara?

Istoriokoak eta sentsazioak. Jendeak zerbait berria, distiratsua, ikusgarria nahi du, argazkia egin eta instagramera igotzeko modukoa. Itxurakeria hutsa da, gero eta gehiago. Zoritxarrez halakoa da egungo errealitatea. Mexikotik iritsi berri naiz eta hiru aldiz gehiago gertatzen da han, eta Estatu Batuetan lau aldiz gehiago. Mundu guztiak ikusi nahi du bere burua Baserriberrin "Bombeja" pintxoarekin. Halakoak dira sariak irabazten dituzten pintxoak.

Bezeroak zerbait sentitzea, hor dago koska. Gure barra ongi pasatzeko eta irri batzuk egiteko da, baina batzuetan jendeak ez du ongi ulertzen guk egiten duguna. Maiztean egin zen kroketaren astean guk gure "Polloc-reta" aurkeztu genuen. Papezko zakutoan bilduta zetorren,

koka saltzen den gisan, eta aldamean bi hauts zuriren marratxoak zituen. Barruan zegoena txorizo kroketatxo bat zen eta hautsa gatza zen, besterik ez. Batzuek ez zuten ulertu eta besterik gabe jan zuten. Beste batzuentzako, aldiz, harrigarria eta dibertigarria izan zen edo kontrakoa. Proposamen ausarta, beti ere. Eztabaida hori da guk sortu nahi duguna. Gainera, Iruñean frijitutakoez dugun menpekotasunari buruzko kritika zen. Ez dakigu besterik jaten! Gure tabernan ez dugu hori nahi eta pintxoak momentuan prestatzen ditugu. Horregatik, sari bat irabazi genuen arte hemen ez ziren sartzen ezta euliak ere. Hori da gure harrikada.

“  
**McDonald's-erainoiz eraman ez zaituzten gurasoak izatea zorte ikaragarria da**

# Iñaki Andradas Eraso

1989, IRUÑEA



Euskal Herriko sukaldari onenean ikasi ondoren, gastronomiaren gorenean kokatu da urte gutxian. 2014an nafar sukaldari errebelazioa izan zen; 2016an Baserri jatetxe zaharra hartu eta Baserriberrin abangoardiako jatetxe bihurtu zuen Luken Vigorekin batera; 2017an Iruñeko pintxoaren lehiaketa irabazi zuten "Bombeja" ikusgarriarekin, eta aurten ere lehen saria lortu dute "Resakwich revolotum re-CenoZ" bestondoa-aren aurkako mokadua-ekin.

*22 razones para tener vino en tu mesa* liburuaren egilea, Iruñeko Indara dantzaleku eta musika aretoko aholkulari gastronomikoa eta duela gutxi ateak zabaldu dituen Sanferfood denda eta proiektuaren sortzailea da Mikel Urmenetarekin batera.





### Zergatik dago emakumeak baino gizon gehiago goi-mailako sukaldaritzan?

Emakumeak gu baino askoz azkarragoak direlako. Hau bizimodu kaskarra da. Nafarroako historian sukaldari handiak emakumeak izan dira: Atxen, Resu Roderokoa, Potxolak, Hartza ahizpak, Pilar Idoate... Haiek dira gure gastronomia go-renera eramán dutenak, baina orain er-gelak gelditzen ari gara negozio hauetan. Ostalaria izatea oso gogorra da. Lan e-giten duzu inork lan egin nahi ez duenean eta ospea bostek baino ez dute. Hemen badira hamabi sukaldari bikain eta bik baino ez dugu izen pixka bat.

### Egunerokoan gero eta alferragoak gara sukaldean?

Bosgarren gamako [kozintzeko eta on-tziratzeko azken teknikak baliatzen di-tuzte] produktu etarantz abiada hartua dugu, inondik ere. Bi belaunalditan iku-siko dugu nola sukaldeak desagertuko diren etxeetatik: mikrouhin labea eta hozkailu-izozkailua besterik ez. Asko ibili naiz Mexikon, Perun, Estatu Ba-

tuetan, Thailandian... eta jendeak ez du etxean kozinatzen. Etorkizuna ha-lakoa izango da. Janaria prestatu nahi dugunean elkarte gastronomikora edo peñara joanen gara, hemen, baina oro har, hori desagertzera doa. Dena ero-siko dugu egina; berotu eta kito. Lehia izanen da prezioarengatik eta kalitatea-rengatik, eta ikusiko da nork balo-ratzen duen janari ekologikoa eta kalitatezkoa, eta nork beste ezaugarri batzuk.

Halere, gauza guztiek ondorio onak eta txar-rak dituzte eta uste dut balioko duela gure lan profesionala gehiago ba-loratzeko. Nafarroan baz-kaltzeagatik 100 euro ko-bratzen duten bi jatetxe baino ez egoteak erakusten du zeinen gaizki gabiltzan. Atzean dagoen lan es-kerge ez da behar bezala kontuan har-tzen. Badira jatetxeak izarra dutenak edo lortzear dutenak, gehiago kobratu behar-ko luketenak, baina ez dute egiten bere bezeroek ez dutelako ordaindu nahi.

**“Argi daukat ongi jaten den toki atsegin bateko langileek ere ongi eta gustura egon behar dutela**

Gaur egungo gazteek jada ez dute ko-zinatzen eta sukaldaritzza ikasten has-ten diren askok egiten dute uste dutela-ko bigarren egunerako ospetsu izango direla eta hau ez da horrela. Gazte baten helburu bakarra famatua izatea bada, desastre itzela da. Hiru aldiz deitu di-date *Top Chef* saiora [sukaldariburuek lehiatzen duten telebista saioa]

joateko, baina ez dut nahi. Ar-giñanok deituko balit, se-gitian joango nintzateke irri batzuk egingo geni-tuzkeelako seguru, bai-na beste era horretako saioetara ezta pentsatu ere.

### “Resakwich revolotum re-CenoZ” zer da zehazki?

Ajerako sandwich bat. Mexi-kon bestondoa kentzeko edaten du-ten Clamato asko gustatzen zait, adibi-dez, eta horretan inspiratu ginen. Gurea zezen buztana da kalimotxoarekin eta muskuilu bexamelarekin, dena absen-tan flanbeatua. ●





## Euskal hiri nagusien eraldaketa



**BALEREN BAKAIKOA  
AZURMENDI**  
EHU-KO IRAKASLEA

**E**konomia zentralizatzen ari den heinean populazioak ere bide bera darama. Hori dela eta, 2050ean munduko populazioaren %66 hiri handietan biziko omen da; Europako populazioaren %73k jadanik egiten duen moduan. Espainiako Estatuaren populazioaren %40 ere, 2030ean, 300.000 biztanle baino gehiagoko hirietan biziko omen da. Bien bitartean, munduko BPGren %80 sortzen da 600 hiri handienetan, non muturreko oparotasuna eta txirotasuna gordinki azaltzen zaizkigun.

Zalantzarik gabe, hiriek aukera gehiago eskaintzen dute nekazari giroko herri txikiak baino, bai lanpostuak aurkitzeko, baita seme-alabeek ikasketak burutu ahal izateko ere. Emakumeak ere erosoago sentitzen dira hirietan herri txiki atzeratueta baino, bai askatasun aldetik, baita lanpostuak ere aurkitzeko orduan. Halaber, oinarritzko zerbitzuak eskuragarriago daude hiri batean herri txikietan baino: osasungintza, hezkuntza...

Euskal Herrian ere populazioa zentralizatzen ari da bertako hiri handienetan eta munduko fenomeno bera bertaratu zaigu. Izan ere, Bilbok betidanik izan du populazioa erakartzeko indarra, Gasteizek, Iruñeak eta Iparraldeko BABk duten bezala; anartean, Donostia ere azken urte hauetan zentralizazio prozesu horretan urrats handiak ematen ari da, nahiz oraindik Gipuzkoa nahiko lurralde orekatua den.

Hemengo herri txikiak ere husten ari dira zerbitzu publiko eroso eta hobeak aurkitzen dituelako populazioak hiriburueta. Ondorioz, hiri nagusien konfigurazioa eraldatzen ari da bertako jarduera ekonomikoren arabera

Laburbilduta, hemengo herri txikiak ere husten ari dira zerbitzu publiko eroso eta hobeak aurkitzen dituelako populazioak hiriburueta. Ondorioz, hiri nagusien konfigurazioa eraldatzen ari da bertako jarduera ekonomikoren arabera. Izan ere, hiri horietan ekonomia bi ardatz nagusitan gauzatzen ari da. Alde batetik, sektore ekonomiko aurreratuak, non ikerketa zentroak eta teknologia garatuko enpresa guneak dauden, soldata erakargarriekin eta unibertsitateetatik irteten diren zenbait ikaslerentzako lanarekin –ez denentzat–; bestetik, turismora zuzendutako negozioak daude, batik bat ostalaritzan.

Bestalde, ohiko merkataritza desgertzen ari da, negozio horiekin lotutako burgesia txikia bezala. Klase horrek hiri-

ko gizarteari kohesio sozial esanguratsua ematen zion eta oso garrantzitsua zen. Egoera horren aurrean, gure agintariek sinestarazi nahi digute sektore hori defendatu eta indartu nahi dutela, baina alderantzizko politika daramate, merkataritzagune erraldoiei alfonbra gorria ipintzen dietelako.

Ekonomiaren bilakaera honetan, gure hirietako denda gehienak frankiziak dira. Izan ere, ohiko denda txikien ordez era guztietako frankiziak sartu zaizkigu, multinazionalekin lotutakoak. Eta berdintsu ematen ari da betidanik ezagutu ditugun ostatuarekin, horien jabe ere inbertsio funtsak egiten ari baitira, batik bat turismorearen eragina esanguratsua den hirietan. Azpimarratu behar da, sektore horiek eskulan merkea behar dutela, kualifikatu gabea, eta hori guztia hirietako periferian daukate, ugari gainera.

Zer egin periferia txiroetako egoera horretatik irteteko? Nire uste apalean, egoera horri aurre egiteko Gizarte Ekonomiaren protagonismoa izan dezake. Horretarako, auzo txiro horietako jendeak, batik bat gazteriak, antolatu behar du udal agintariak presionatzeko eta baliabide ekonomikoak ipin ditzaten. Lehen urratsa, auzo elkarte esanguratsuak sortzea izango litzateke, gerora hiriko premien eta imajinarioaren arabera, enpresa proiektu txiki sendoak garatu ahal izateko. Horretan, eskarmentu ugari dago: Bartzelona-Sants, Berlin... ●



# Inklusioa, edo nork-nor



IRATI ELORRIETA  
IDAZLEA



PAULA ESTÉVEZ

**A**skoren ahotan dabilen gaia da inklusioarena. Bai hezkuntzan bai gizartean halakorik gauzatzetik urruti gauden neurrian, elkarrekin bizitzeko modu hobea baten utopia da oraingoz. Errealitatean inklusioarantzako pausoak ematea prozesu geldoa denez, beharbada literaturak egin lezake prozesu azkarrago bat. Alegia, kamera azkarrean simulatu lezake prozesua. Literatura izan daiteke utopia hori irudikatzen, marrazten hasteko, aurreratzeko toki bat? Bada dagoeneko?

Zeregin horretan haur eta gazte literatura non eta nola dabilen jakiteko asmoz hurbildu nintzen ekitaldi batera. Segundo gutxitan ingurua aztertu zuen barruko kamerak: ehun bat pertsona. Denera, hiru gizon. Hiruak lehen leerroan eserita. Haietako bat gurgildun aulkian.

Mahai-ingurua hastera zihoala, gizonetako bat parte-hartzailea zela geratu zen agerian. Han entzun nituenak ez zitzaizkidan berriak egin. Oso gauza orokorrak esan ziren. Tartean, asmo onez argitaratutako guztiak ez duela helburua betetzen. Izan ere, kontua ez da politikoki zuzena den irakasgaia petatxu edo apaindura gisa liburuetara eramatea, haur beltza edo elbarria album ilustratu baten irudietan jarriz (txertatuz).

Irakurtzeko ohitura duenak badakien zerbait da: pertsonaia baten ezaugarri nagusi (edo bakarra!) bere gurgildun aulkia edo buruan daraman zapia bada, pertsonaia laua izango da ezinbestean. Pertsonaia horren ezaugarri horixe (dela elbarria, beltza, pobrea, ama edo aita gabea, transexuala, atzerritarra: x) bere identitatearen baitan duen irakurleak ez du pozik hartuko. Irakurleok (adinak eta beste guztiak ere berdin dio) ezin dugu pertsonaia lauekin identifikatu. Literaturaren egiteko bat gure eta besteen *barne-bizitzetarako* leihoak zabaltzen saiatzea da. Kontakizunak, azalean geratzen bada, ez du zirrararik eragiten, eta beraz, ezin du benetako ulertze-momenturik sortu. Baina, noski, inklusioa, gizartean bezala, aniztasunaren eskutik soilik etor daiteke literaturara ere. Aniztasuna bai pertsonaia motetan, bai istorioetan, bai estetikan.

Bukaerako galderen txandan, gurgildun aulkian zegoen gizona ere parte-hartzaileetako baten proiektuko kidea zela geratu zen agerian. Parentesia zabalduko dut goian esandakoaren harira: arin batean gurgildun aulkia dabilen gizonezko bezala deskribatu (etiketatu) dudanak bere web-orrian

dio: "Berlindarra. Idazlea. Aurkezlea. Komunikabide-egilea. Enbaxadorea. Inklusio-aktibista". Zerrenda osatuago horrek ere bere identitatearen arlo batzuk baino ez ditu aipatzen, bere burua publikoki aurkezteko aukeratu dituenak. Fikziozko istorio baten pertsonaia (konplexu) bihurtzeko asko faltako litzateke oraindik! Hirugarren gizona, ia bukaeran, gorra zela geratu zen agerian. Itzultzaileek bere galderak itzuli zituztenez.

Ekitaldi horretara joatetik atera nuen ondorioz argiena da gizon bakar bat ere ez zela entzutera joan, zuzenean gaiarekin inplikaturik egon gabe. Arauaren zentroaren zentroan dagoena, arin esanda, klase ertaineko gizon zuri, heterosexualek, elbarri gabea bada, zentroaren zentroan daudenetako bakar bat ere inklusioari buruzko ekitaldira hurbildu ez izana bada esanguratsua. Ala ez?

Irudia muturrera eramanez, bazterrak indarra hartuz gero, inkluitzeko geratuko liratekeen azkenak izango dira beren burua normaltzat jotzen duten horiek. Bazterretako batean dagoenak ere normaltasuna aldarrikatzen du, baina denok normalak ez garen bitartean, ez da inor normala. ●



## Semetxoaren hegoak



**JOSE IGNAZIO  
ANSORENA**  
TXISTULARIA

**E**uskadi Irratian entzunda: "Jose Ignazio Ansorena zenaren obra bat joko dute...". Arraioa, bizirik nengoelakoan. Askoren uste faltsu bera neuk ere. Ez, baina, osaba Jose Luis zendu berriarekin nahastu ninduten. Ohorea niretzat osabaren pare jartzea, heriotzan izan arren. Horretan ere miresgarri izan baitzen.

Isidro aitak, etxeko besteei bezala, Jose Luisi obra koskorra eskaini zion, *Semetxoaren poza*. Jolas xumea asmatua zuen haurrentzat: bera aulkian eserita, izterren gainean umetxoa jarri eta gora eta behera ibiltzen gintuen *tturrukuttutu...* kantatu bitartean. Familiako txikienero barre algarak eginarazten zizkigun doinua erabili zuen osabari dedikatu zion piezan. Poz hori Jose Luisi betirako itsatsi zitzaion. Hainbeste non erregalatzeko ere ugaria izan duen.

Hil denean, laurogeita hamaika urtez (egun baten faltan), hedabideetan etengabe goraiatu dute, nolako antolamenduak sortu zituen, nola ahalegindu zen euskal musika zabaltzen eta musikariak ezagutarazten... *Eresbil*, egun erakunde publiko ereduagarri bihurtua, sortzeko izan zuen argia eta egin zuen lana, nolako *enprendedorea* zen.

Horretarako kemena eta poza nondik zetozkion? Frantziskotar aukeran ziur aski. Hamalau urte zituela fraile kaputxi-

no joatea erabaki zuen, pobre eta ahulen laguntzaile. Irmo jarraitu dio xede horri bizitzako egun guztietan. Benetako barru pozaz.

Frantziskotartasuna ongi uztartzen zen izaera sendoarekin. Ez baitzen isiltzekoa eta mengeletik izpirik ere ez zuen: nagusi erlijiosoan aurrean edo bestelako agintariei hitz egiteko beti landu zuen libertatea. Hainbatek epelak entzun zituen Jose Luisen ahotik.

Mendizaleatasuna ere horrekin lotzen zitzaion. Ez zuen Everestera igo beharrik izpiritua egurasteko. Larrasa edo Mendaur, Ernio edo Aitxuri, Anboto edo Orhi ederki ezagutzen zituen. Urbasako bazterrak maiteen. Han *artzainen kape-llau* esaten zioten.

Ez da ulertzen horrelakorik egunotan. Kapital-liberalismoaren festa honen aukera diru-gosez mugitzen direnei bidea erraztea da, tankera bakarreko *enprendedoreei*, aberastasuna eta etorkizun hobea dakartelako ustez, azpikoak ongi zanpatu eta egoa hanpaturik, Everesteko gailurra oinkatu dutela, ilara txoroetan iritsita, kontatu nahi dutenei.

Hara nola pobretasunaren alde egin zuen *enprendedore* batek etorkizun hobea zabaldu digun. Eta gailur ederragoe-tara iritsi. Horretarako egoak ez, hegoak behar ditugu. ●

## Errukia



**LEIRE NARBAIZA  
ARIZMENDI**  
IRAKASLEA

**P**ablo Ibarri egindako hirugarren epaiketak hemengo irrati eta telebistetako informatiboen minutu ugari bete zuen bere sasoiari. Duela gutxi atzera ere agertu da lerroburuetan Ibarren auzia. Apirilean erruduntzat jo ostean, ordukoan epaia eman behar zuten: heriotza zigorra ala bizi osorako kartzelaldia. Hil ez zezaten semeek, emazteak, familiakoek berba egin zuten bere alde. Ona dela esateko, ezinbesteko pertsona dela euren bizitzetan. Helburua epaimahaikideen bihotza samurtzea zen, nahikoa zelako haietako bakar batek hilketa legalaren kontra bozka-

tzea pena hori ez ezartzeko. Errukiaren estrategia, alegia. Funtzionatu die, eta poztekoa da.

Baina zer gertatuko zatekeen Ibarrek familiarik izan ez balu? Ez zituzkeen juzgatzen zutenen bihotzak bigunduko? Pena ematea ezinbestekoa izan behar ote da justizia egin dadin? Errukian oinarrituta dagoen zuzenbidea zuzena da?

Kontua da gizarte-sistema osoa ere halakoa dela. Karitateak ere gupidan du oinarri, urrikalduz gero, laguntza errazago ematen da, telebistako GKEen iragarkiak ikustea besterik ez dago. Eta hori ez da justua, lastima! ●



# Segurtasun koefizientea zertarako?



**JOXERRA AIZPURUA  
SARASOLA**  
INDUSTRIA INGENIARIA

Ingeniaritza ikasketetako lehen urteetan gai teorikoak baino ez nituen izan, eta azken urteetan mundu praktikoarekin egin genuen topo. Makinen funtzionamendua eta altzairuzko zein hormigoizko egituren nondik norakoak azaldu zizkigutenean, gogoan dut irakasle batek segurtasun koefizientea aipatu zigula. Egitura bateko zutabeen hormigoia eta bere baitan dituen altzairuzko harien diametroa kalkulatzeko, matematikak esandakoari, segurtasunaren mesedetan, bider bi edo bider hiru egin behar zela esplikatu zigun. Hain zuzen, horrela egiten zela.

Betidanik izan dut kontzeptu hori buruan eta New Yorkeko etxe-orratz baten edo hemengo zubi baten habeak ikustean, pentsamendu bera etorri izan zait burura: habeak behar baino lodiago eraikiko zituztela, seguritatearen ize-nean. Halaber, beti pentsatu izan dut eraikuntzetan aurrezpena lortu nahi bada, segurtasun koefizientea txikituz egin beharko dela, eta noski, zenbat eta merkeagoa izan egitura, orduan eta handiago da egitura hori kaltetzeko arriskua. Munduan, porrot egin duen egitura askoren atzean, eraikitzeke garaian ma-

Pertsona bezala lur jota sentitzen naiz, eta euskaldun eta hiritar bezala baboa, ia inork ez duelako esan inbertsioaren kapitala, interesak ahaztuta, ordaintzeko gutxienez 400 urte beharko direla

terial kaxkarrak edo segurtasun koefiziente nahikoa aplikatu ez izana dagoela gauza jakina da.

Irakasle hark esandako beste kontzeptu bat geratu zait buruan, tunelarena alegia. Tunel bat eraikitzean, auskalo zer topa dezakegun esaten zigun, material gogorregia, bigunegia, ura eta abar. Eta egia da, zenbat errepide lanetan gertatu dira tuneletan arazoak?

Azken urteetan kilometro dezente egiten ari naiz Euskal Herrian barrena, eta askotan egiten dut topo AHTren lanekin. Ingeniariaren begietatik, AHT zubien eta tunelen arteko egituren segida baino ez

denez, askotan galdetzen diot neure buruari zutabe hori nolako koefizientea-rekin kalkulatu ote duten. Edo tunel horren barnean zein sorpresa ote dagoen ezkutaturik.

Euskal Herrian eraikitzen ari diren AHT zatiaren kostua 10.000 milioi eurotan estimatzen da, eta apirilean irakurri nuenez, zerbitzua 2024an abian jarri nahiko lukete agintariek, hiriburuen arteko ibilbidea zortzi euro kobratuz; egia esan, azken datu horiek harri eta zur utzi naute. Eraikuntza lanekin kezkatuta nengoen, alegia zutabeetako hormigoia eta altzairuen egiturekin eta tunel barneko sorpresekin, baina 2024. urtean zerbitzua abian jarriko dela ziurtatzea (hainbat lan garrantzitsu Madrilan eraikitzeke zain gaudenean) eta urtero 24.000.000 euro bilduko direla esatean (beraz, inbertsioa, ekonomikoki bederen, hondamendi ikaragarria izango denean), pertsona bezala lur jota sentitzen naiz, eta euskaldun eta hiritar bezala baboa, ia inork ez duelako esan inbertsioaren kapitala, interesak ahaztuta, ordaintzeko gutxienez 400 urte beharko direla. Horrelakoak ikusita, nahiago dut segurtasun koefizientearen ez pentsatu. ●





# Ø200

SLOW · KAFETEGIA

BERTAKOA · GARAIOA · EKOLOGIKOA  
GEUK PRESTATUA · ERANTZUKIZUN SOZIALA



Altuna baserria · Arrillaga Txiki baserria · Basatxerri · Behieko Sabekoetxea · Biok gazta  
Bodegas Lezaun · Carlos Petrina · El Alcaraván · Ertxieko · Euskal Herria Esnea  
Euskal Untxia · Goi Eko Haragia · Karabeleko · Goiti okindegia · Gumendi  
Larreta Esnekiak · Lur Lan · Lurrarte · Mahala · Nabarreko · Oresa gazta  
Pikunieta baserria · The Loaf · Tolosako Merkatua · Urrullo agroaldea · Zalmendi

---

ORDUTEGIA | Astelehenetik ostiralera | KAFETEGIA 07:00-17:00 | JATETXEA 12:30-15:20  
Hernani, Gipuzkoa | 943 265 022 | [www.diametro200.com](http://www.diametro200.com)

# Hiztun zapalduak ere behar dute erreparazioa

Euskaraz egiteagatik belauniko eta liburuak eskuetan, euskaraz egiteagatik ikasgelako azken mahaira, euskaraz egiteagatik: “aldeano burro!”... Zigorra, mespretxua, debekua. Eskolan, eta kalean, eta lantokian... Hizkuntza zapaldua izan da mendeetan, baita azken hamarkadetan ere. Euskal Herrian Euskaraz mugimenduak “Egia, Aitortza eta Erreparazioa euskaldunontzat” manifestua argitaratu du. Ale xumea, apenas landu eta ezagutarazi den errepresioaren memoria osatzeko.

## ONINTZA IRURETA AZKUNE

**E**uskal Herrian Euskarazek manifestuarekin batera hamar bat minutuko bideo-dokumentala osatu du. Ahotsak egitasmoak jende helduari egindako ehunka elkarrizketetatik hizkuntza zapalkuntzarekin zerikusia duten txatalak bildu dituzte EHEkoek. Euskaldun horien testigantzak hainbat gaztek ikusi ditu eta EHEko kideak harrিতuta geratu dira, konturatu direlako gazte gehientzat halako gertaerak ezezagunak direla. Bideoan ageri diren euskaldunek duela hamarkada gutxi pairatu zuten jazarpena kontatzen dute, batik bat, eskolako; ez dira duela mendeetako zapalkuntzaz ari, atzo goizekoaz baizik. Urko Aierbek kezka adierazi du: “Herri bezala hausnartu behar dugu nola ari garen egiten memoriaren transmisioa, euskara komunikazio tresna bezala

transmititzeaz gain, hizkuntzaren ingurua, euskalduntasuna nolabait esan, ez gara ari transmititzen, edo ez behintzat behar bezala”.

## EUSKAL GATAZKAN HIZKUNTZA ERE BADA

Manifestuaren ardatza dira egia, aitortza eta erreparazioa, eta hiru kontzeptuak euskal gatazkaren errelatoaren eztabaidan jorratzen diren hiru elementuak dira. Gisa berean landu nahi dute hizkuntzagatik eragindako bortxa, zapalkuntza. Euskal gatazka deitzen zaion eremu horren barruan, esate baterako mugimendu feminista hasi da bere irakurketa egiten, bere egia, aitortza eta erreparazioa lantzen eta eskatzen. EHEk gauza bera eskatzen du hizkuntzaren jazarpenari dagokionez. Aierbek ez du uste bortxa moten artean



alderaketak egiten hasteak zentzurik duenik, “baina horrelako lanketen bidez ikusten da bortxa aurpegi anitzekoa izan dela eta hiru kontzeptuak baliagarriak direla eremu guztietarako”.

## ZERTARAKO OROITU?

Gertatu dena jakiteak balio du gaur egungo egoera azaldu ahal izateko, EHEren ustez. Euskararen eta euskaldunen gaur egungo egoera ez baitira kasualitatearen ondorio, erabaki eta neurri batzuen ondorio baizik. Zein erabaki eta neurri izan diren, nork hartu dituen, nola gauzatu diren, zein ondorio izan dituzten, ezinbestekoa da gaurkoa ulertzeko.

Eta egiaaren ondoren dator aitortza, egindako kaltearen aitortza. Eragileek aitor dezatela: “Bortxa erabili genuen, hizkuntza ordezkapena eta hizkuntza





gatazka sustatu genituen euskara gaztelarekin edo frantsesarekin ordezkatzeko”. Manifestuaren bultzatzaileek oso ondo dakite halako esaldirik ez dela esango: “Bereziki bi estatuak, gaur egun euskara ordezkatzeko norabidean neurriak hartzen ari dira. Aitortza aldarrikatzen dugu jakinda ez dela helduko”.

Egia, aitortza, eta ondoren erreparazioa. EHEk hirugarren kontzeptu honetan jarri nahi du indarra, izan ere jazotakoa ezagutzeak aurrera begira lan egiteko balio behar du, hizkuntza politika zehazteko. Hala dio Aierbek: “Erreparazio bakarra Euskal Herria berreuskalduntzea da, euskaraz bizi nahi dugunok inolako oztoporik eta mugarik gabe hala aritzeko aukera izatea. Erreparazioa diogunean ez dugu esan nahi orain dela ez dakit

zenbat mendeko errealitate linguistikora itzultzea. Orain, hemen, hizkuntza asko dago eta hemen bizi garenok erabaki beharko dugu nola antolatuko hizkuntzak. Gure iritziz, ezinbestean, euskara ardatza izan behar da”.

### ARRETA GUTXI ORAINDIK

*Euskararen kate hautsiak. Hizkuntza zapalkuntzaren memoria* (Dabid Anaut, Euskal Memoria Fundazioa), Koldo Izagirreraren *Autopsiarako frogak* (Susa), Joan Mari Torrealdairen *El libro negro del euskera* (Ttarttalo)... bada jazarpena jaso duen literatura, badira bortxa jasan duten euskaldunen lekukotasunak. Beste kontu bat da dagoena zenbateraino zabaldu den, zenbateraino iritsi den euskal herritarrengana. EHEk baditu bi kezka gertatutakoa dibulgatzeaz ari garela. Batetik, hezkuntzak

**EUSKARAZ EZ.** ESPAINIAKO MAPA, AMA BIRJINA, GURUTZEA ETA FRANCO HORMATIK BEGIRA. ESKOLA FRANKISTA ETA KATOLIKOAN DEBEKATUTA ZEGOEN EUSKARAZ EGITEA. MAKINA BAT HAURREK ZIPITZIK EZ ZEKIEN GAZTELANIAZ. MOTA ASKOTAKO TRAUMEK GAUR EGUNERA ARTE IRAUN DUTE. ARGAZKIA: EHU, HEZKUNTZAREN MUSEOA.

eta hedabideek memoria transmititzeari zenbaterainoko arreta ipintzen dioten zalantzan jartzen du. Bestalde, politika linguizidak bultzatu dituzten eragile, alderdi eta instituzioak badira oraindik, “eta haiei ez zaie interesatzen hura kontatzea, are okerrago, diskurtsoari bira eman eta euskaldunoi inposizioa leporatzen digute”. Bestetik, sektore euskaltzalean behar bezalako arretarik ez zaiola eman uste du EHEk, “guk egitasmo xume hau egin dugu, aurrera begira jarri ahal izateko”.

# Lekukotzak zapalkuntzaz

Ondoko pasarteak Ahotsak egitasmoak bildutako uztatik ekarritakoak dira. Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea jasotzea helburu duen egitasmoak belaunaldi helduenei egindako elkarrizketa ugari du bildua. Euskal Herrian Euskarazek elkarrizketa horiek arakatu ditu eta euskaraz aritzeagatik jasandako zapalkuntza adierazten duten pasarteak aukeratu eta *Mugarik gabeko euskara* dokumentalean bildu ditu.




“ Behin nire anaia txikia eta biok aitarekin kalean gindoazen. Berak guri euskaraz, beti bezala. Etorri zen falangista, halako kakanarroa, ez zen gizon handia, nire aitak eman bazion... Pistola eta guzti zeukan. Gure aitari masailekoa eman zion, lotsagarria. Gizon ausarta zen gure aita, baina gu alboan ginen eta nik uste dut eutsi egin ziola, guregatik. Zerri hark esan zion: *Hablad en cristiano!*”

“ Zenbaitetan karrikan zenbait neskak ez zuten jostatu nahi gurekin. Beharbada, gu kanpainakoak, ez horren ongi beztituak, beste mintzaira bat konprenitzen genuen, beste mintzaira bat genuen errekreazionean-eta ginelarik. Horretan sufritzen zen. Lagun bati beti erratan diot (ez da euskaraz mintzatzen): ‘Lagunik hoberena zinen, uzten gintuzun jostatzen zuekin’. Nire buruari egiten nion orduan: ‘Nor naiz ni orduan?’ Ni bezala besteak ere! Kanpainakoak eta euskaldunak. Pixka bat beheraxe”.

“ Bi lagun hizketan gindoazen eta jarri zitzaigun bat aurrean: ‘*Oiga usted, hable por favor en cristiano*’. ‘*En cristiano? Kristauak gara*’. ‘Bada hitz egin ezazue *en cristiano!*’ ‘Euskaraz hitz egiten dugu, baina kristauak gara’. Eta berriz ere: ‘*Hable en cristiano!*’, eta alde egin genion. Euskaldunak ez ginen izango kristauak!”

“ ¡*Aldeanos burros!* deitzen ziguten herrikoek, kanpotik etorritako erdaldunek. Indioak bezala hitz egiten duzue! Beti euskaraz egiten genuen, erdaraz berba egiten jakin ez, eta beti lotsak, koldar eskolan. Horiek eduki duten aurpegia! Guri *aldeanos burros* eginez! *Boronos* esanez!”





“Gogoratzen naiz izeba batekin, ‘zer pasa da?’, galdetu nion, ‘begira zer egin didaten!’. Kaskamotz utzi zuten, euskaraz egiten zuelako”.

“Eskuak horrela jarri eta jo, edo bestela bi burdinazko plantxa edo bi adreilu eskuetan hartu eta ordubetez horrela eduki. Horrelako zigorrak izaten ziren orduan”.

“Ni nintzen *‘la casera’*. Gutxi joaten nintzen eskolara, baina ez nintzen motelena. Jakin gabe nik zer nekien eta zer ez, *‘al pelotón de los torpes’*, atzean uzten ninduten”.


“Behin joan ginen Iruñera egun-pasa, hasi gara euskaraz kantuan, eta denak atxilotuta, mojak eta denak. Harrezkero ezta txintik ere euskaraz”.

“Nik eta beste hiruk-edo egun guttia belauniko egiten genuen, zeren aitak esaten zigun ez egiteko erdaraz. Bai, belauniko. Maistrak igartzen bazigun espainolen ideiekin ez geundela... zigortuta”.

“Zigorrak baino min handiagoa ematen zigun tratuak. Oso tristea zen, ezin zenuelako ikasi, ezin esan, ezin egin nahi zenuena. Zer esango eta: *‘casera burra!’*. Horrek min handia ematen du”.

“Nire aita eta ama, Donostiara joan dira sendagilearengana eta euskaraz ari zirelako multa”.

“Maistrak bati ematen zion eraztuna, hark beste bat euskaraz egiten harrapatzen baldin bazuen hari emango zion eraztuna. Hurrengoak besteari, hurrengoak besteari... Hurrengo egunean, eskolara joandakoan ‘zuk zeini eman diozu eraztuna?’, maistrak galdetuko zion. Hark esango zion holakori, besteak besteari, eta denak han egongo ziren zigortuta. Mutilak jo egiten zituzten, jo, horrela jarri behatzak eta goitik behera makilarekin”.



## “Hizkuntza jazarpena ez da argazkietan agertuko”

Dabid Anaut, *Euskararen kate hautsiak. Hizkuntza zapalkuntzaren memoria* (Euskal Memoria Fundazioa) liburuaren egilea

**Zeuk esana da ez dela errepresio mota ikusgarriena eta lazgarriena, adibidez, gerrarekin alderatuz. Hiztunen aurkako jazarpena lausoagoa da. Zailagoa da lehen lerrora ekartzen?**

Ez dago gerrak utzi dezakeen marka fisikorik, hildakoak eta zaurituak adibidez. Euskararen jazarpenak ez dizkigu horrelako argazkiak utzi, batik bat jendeari gogoan gelditu zaion aztarna daukagu. Ikusten zailagoa da, eta beharbada azaltzen ere zailagoa, baina jazarpen hori ere gogorra da. Jendeak gaizki pasa du, hizkuntza hitz egin nahi eta ezin, baztertuta eta mespretxatua sentitu da. Oso gauza potoloa da. Aztarna ez da argazkietan ikusiko, testigantzen bidez jaso daiteke. Arreta jarri behar zaio.

**EHEk aurkeztu zuen dokumentalean haiei gertatutakoa etsipenez kontatzen dute, hizkuntza eskubideen urraketatik jabetu ez balira bezala.**

Errepresio bortitza jasan zuten belaunaldiak nolabaiteko etsipena erakusten dute:

horrela izan zen, gauzak horrela ziren orduan... Kasik ahaztea nahiago balute moduan. Bestalde, jasan zutenarekin batera zetorren gerra ideologikoa. Boteretik zetorren borroka ideologiko hark ulertarazi zien euskarak ez zuela ezertarako balio. Gertatutakotik hainbat urtera hura kontatu, eta zoritxarrez, nabari da ez dutela gogoetarik egin, gaurko belaunaldiak egin duten bezala. Haietako asko, urteak pasata ere, hizkuntza eskubiderik ez balute bezala bizi dira, hizkuntza etxerako dute. Hala ere, erresistentzia jarrerak ere izan ziren, eta eskerrak batzuek hala egin zuten.

**Zapalkuntzak ondorioak uzten ditu hiztunengan. Nolakoak izan daitezke?**

Ondorio kolektiboak daude alde batetik. Euskarak lurraldeak, hiztunak eta funtzioak galdu ditu. Bestetik, hiztunek pairatu dituzte ondorioak. Hiztuna isildu egin da askotan, euskara jakin arren ez erabiltzea erabaki du. Horretaz gain, seme-alabei ez irakastea erabaki du. Hori galera ikaragarria izan da, belaunaldi eta lurralde

batzuetan, oso epe motzean, hizkuntza galdu baita. Kontzientzian ere arrastoa utzi du, nahiz eta batzuek erauntsia izan, eta beste batzuetan aldiz, sirimiria. Jendeak hizkuntzarekiko pertzepzio kaskarra barneratu du, hizkuntza eskubideak gutxietsi ditu. Hamarkadatan esan zaigu euskarak ez duela balio. Hala ere, gaur egun, neurri batean, horri bira eman zaio eta euskarak badu prestigioa. Baina esandakoa, motxila hor daramagu.

Etsipena alde batera utzita, erresistentziari dagokionez, bi modutara heldu dio euskaldunak. Batetik, hizkuntzari atxikimendu naturala izan dio, kasik kontzientziarik gabe: “Euskaraz egingo dut eta kito”. Bestetik, aurreko eredu baina jarraia ideologizatuagoa izan dute, zapalkuntzaren aurrean erreakzionatu dute: “Nik eutsi egingo diot”. Bien baturari esker iritsi gara iritsi garen tokira, zorionez. ●



Ekainekoa, kalean!

# EUSKARA IKASLEA ZARA? IRAKASLEA?



- EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT
- BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT
- 10 ALE URTEAN

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29€** ● [aizueus](http://aizueus.com)





**ARABA EUSKARAZ**

# 2019 GASTEIZ

 **GERTU**

**EKAINAK 16, GASTEIZ**

*elkarrengandik gertu*



“ Bidean geratu direnen  
mezua helaraztea  
garrantzitsua da”

Pape Niang eta  
Mikel Garcia Idiakez  
"Hasiera berri bat"  
liburuaz





Bilboko kale saltzaile senegaldarren egoera ezagutzera emateko asmoz, Bizkaiko hiriburura abiatu zen ARGIAko kazetari Mikel Garcia Ildiakez 2018ko apirilean. Horixe izan zen kale saltzaile senegaldarren Mbolo Moye Doole elkartearen eta ARGIAren lehen harremana, elkarlanean oinarritutako bide emankorraren abiapuntua. Bide horretan ezagutu du kazetariak Pape Niang, orain hamaika urte Senegal utzi eta Europara bidea hartu zuen migratzailea. Bere historia jaso du *Pape Niang: Hasiera berri bat* liburuan.

 AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA  
 DANI BLANCO

### **Mikel, zuri galdetuko dizut lehenengo, eta gero zuri, Pape. Nola ezagutu zenuten elkar?**

**Mikel Garcia:** 2018an, Senegalgo kale saltzaileen inguruan ARGIArako erreportaje bat egitera etorri nintzen Bilbora. Zein baldintzatan bizi ziren azaltzeaz gain, ordurarte kotizatzen eta legalki aritutako senegaldarrak klandestinitatera eta berriro ilegal izatera kondenatuko zituen lege bidegabearen berri ematean nuen helburu. Egoera ezagutzera etorri, eta hor hasi genuen elkarlana eta elkar ezagutza Bilboko Mbolo elkartearekin. Pape bertako lehendakaria zen.

### **Nola sortu zen liburua sortzeko ideia?**

**Garcia:** Mbolokoak kale salmentan jasaten ari ziren injustizia ezagututa, ikusi genuen bazegoela *Inor ez da ilegal*a aldarria proiektu bihurtzeko modua, beronen bitartez bai Mbolo bai ARGIA indartzeko. Elkarlanean, proiektua martxan jarri eta *Inor ez da ilegal*a kamisetak atera genituen, euskaraz eta wolofez. Helburua zen aldarri hori plazaratzea eta era berean hortik ateratako diruarekin bi proiektuak laguntzea. Abiapuntua hori izanik, urrats berriak eman ditugu: poltsak egin genituen, eta urrats natural gisa atera zen liburuaren ideia ere. Liburuarekin proiektua indartzen dugu, eta zehazki, oraingoan ateratako irabazien zati bat liburuaren wolofezko bertsioa argitaratzera bideratuko dugu. Xedea da liburua Euskal Herrira iristen diren migratzaileen artean doan banatzea, aurkituko duten errealitatea ezagutu dezaten. Besteak beste, liburuak baliabide zerrrenda bat du bukaeran, Euskal Herrira iritsi berri den migratzaileak zein ate jo ditzakeen jakin dezan.

### **Zergatik izan da Pape testigantza emateko aukeratua?**

**Garcia:** Paperena ezagutzea merezi duen bizitza bat delako, eta era berean, badelako migratzaile askok bizi dutenaren isla ere. Oso nobela-itxurako bizitza du, erraz irakurtzen da liburua, eta horrez gain zeresan ugari du Papek. Gogoetarako eta eztabaidarako gai asko mahaigaineratzen ditu, eta bere bizitzaren kontakizunaren bitartez bere mundu ikuspegia ere ematen du, baita ikuspegi hori nola joan den aldatzen ere, migrazio prozesuaren ondorioz. Irakurtzea eta ezagutzea merezi duen mundu ikuspegia dela iruditzen zait.

### **Nolakoa izan da prozesua?**

**Garcia:** SOS Arrazakeria elkartearen Bilboko egoitzan bildu gara astero. Beti oso eskuzabal jokatu dute gurekin, espazio hau oso gure sentitu dugu, bertan lasai ederrean hitz egin ahal izan dugu. Papek eta biok, elkarrizketak baino gehiago solasaldiak izan ditugu. Honetaz eta besteaz hitz egin, hausnartu, eztabaidatu eta gogoetatu dugu. Bere bizitza ezagutu eta apunteak jaso ditut, eta gero guztia paperera eramatea izan da nire lana.

### **Liburuak badu epilogo bat, emakumezko migratzaile baten esperientzia jasotzeko beharretik sortua.**

**Garcia:** Liburu honek Paperen bizitza kontakten du eta esan bezala migratzaile askok bizi dutenaren isla ere bada. Aldi berean, ordea, migratzaile bakoitzak migrazio prozesu propioa dauka, errealitate oso ezberdinak baitaude, gehienak oso zailak. Paperena horietako bat da, mahai ganean jartzea merezi

duena, baina ez ditu bere gain hartzen prozesu guztiak. Hori hala, zertzelada batzuk emanez besterik ez bada ere, Afrikatik migratzen duten emakumeen errealitatea islatzeko beharra izan dut, aipatzeko emakume askok ere migratzen dutela eta oztopo erantsiak dituztela. Horretarako Irungo Harrera Sareko Anaitzek emandako informazio eta dokumentazioetik tira egin dut, berak emakume asko ezagutu dituelako migratze prozesu hori aurrera eramanez dutenak.

### **Zuri, Pape, aurpegia eta testigantza emateak egoera zaurgarrian jarraitzeko, paperik ez duzulako. Hala ere, pausoa ematea erabaki duzu. Zerk motibatuta?**

**Pape Niang:** Nik ez daukat arazorik aurpegia emateko edo biharko egunean poliziak harrapatua izateko, berdin zait, egiten ari naizenak zeozertarako balio duela uste baitut. Bizitzen eta sufritzen duguna kontakten badugu, agian jendeak migrazioa zer den ulertuko du. Migrazioak dakartzan zailtasunez ere hitz egin behar dugu: aditzera emateko migratzailea beti dagoela poliziari erne, nola biziraun pentsatzen, bizi duen egoeratik aterabideak bilatzen. Bada jende gehiago kontakzteko ugari duena, egiten ari naizena egin ahalko lukeena, baina aipatutako guztiagatik, agian, beldur dira.

### **Liburuak entzunak ez diren edo bidean geratu diren migratzaileen testigantza ere izan nahi du.**

**Testigantza bakarrak badu mezu bikoitza: bata migratzaileentzat eta bestea jatorriz bertakoak garenontzat.**

**Niang:** Mezua da garrantzia duena. Migrazio prozesuan bidean geratu den



**BELTZA.** "Beltza zara eta beltz gisa hartzen zaituzte. Kito", dio Pape Niangek.

orok kontatzeko asko zuen, beren jaioterrietik abiatze hutsagatik esperientzia askoko norbanakoak ziren. Pertsona horien guztien mezua helaraztea garrantzitsua da, jakinarazteko beren herrialdetik alde egin bazuten bizimodua aurrera ateratzeko izan zela. Ez dugu soilik esan behar Mediterraneoan jende asko hil dela, horren zergatia azaldu beharra dago: jende hori bizia aurrera eramateko saiakeran hil da, helmugatzat zutena beren abiapuntua baino hobea zela pentsatuta.

Migratzaileok hutsaren hurrena bagina bezala hautematen gaituzte, esperientziarik gabekoak, berezko tokirik ez bagenu bezala. Bertakoak ez dute kontuan hartzen gure jaioterrian agian ez garela hain txiroak. Horren aurrean, migratzaileok geure buruak balioetsi behar ditugu, pertsonak garela ulertzerara eman, gure jaioterrian hemen bezala bizi eta lan egiten dugula ulertarazi. Eta jatorriz bertakoak direnak ohartu behar dira beraiei ematen zaien tratu berbera merezi dugula etorkinok, gure azalean jartzeko ahalegina egin beharko luke-

te. Bertako jendea konturatu behar da etorkinok pertsonak garela, langileak eta arduratsuak, baita oso ausartak ere honainoko bidea egiteagatik. Desertua

***"Oso nobela-itxurako bizitza du Papek, eta aldi berean, gogoetarako eta eztabaidarako gai asko mahaigaineratzen ditu liburuan. Migrazio prozesuaren ondorioz, munduarekiko ikuspegia aldatzen joan da bera"***

Mikel Garcia Idiakez

bost litroko ur bidoia eta gailera pakete batekin zeharkatzea ez da erraza, hori egin duen jendea mundu guztiak baloratu beharko luke.

**Migratzearen ideia buruan dabilkionari ere baliagarri suertatu ahal zaio zuk diozunari arreta jartzea. Ziurrenik han utziko duena European aurkitu dezakeena baino hobea dela baitiozu.**

**Niang:** Europaren irudi idealizatua dugulako alde egiten dugu Afrikatik, baina bertara heltzean errealitatea oso bestelakoa da: European jendeak Afrikan baino gehiago sufritzen du. European lanik egin ezean ez duzu jaten, Afrikan bezala, berdin-berdin, ez dago hainbesteko ezberdintasunik. Telebistak irudi desitxuratuak eskaintzen ditu: Afrikari dagokionez, jendea gosez hiltzen den guneak erakusten dituzte; Europari dagokionez ostera, etxe eta errepide ikaragarrien irudiak eskaintzen dituzte. Europako irudietan inoiz ez dira azaltzen zabor artean janari bila dabiltzan pertsonak edo etxegabeak. Afrikar gazteek irudi horiek ikusten badituzte, eta Europara migratutako kideek hemen ondo bizi direla esaten badiete, migratzera animatzen dira. Nik ez etortzeko esango nieke.



Afrikan lan egin eta bizi ahal izateko baliabide guztiak ditugu, kontua da horiek nola antolatu hausnartu behar dugula. Ezin dugu bizi guztia migratzen igaro.

### Migrazioa negozio itzela dela diozu.

**Niang:** Bai, eta galtzen ateratzen den bakarra paterara igotzen dena da. Ostatu ematen dizutenak, zure bila doan kotxe-gidaria, trafikatzailleak, patera abiatzea errazten dutenak... Jende horrek guztiak etekina ateratzen du. Galtzen duen bakarra haiei ordaintzeko dirua luzatzen duen migratzailea da, eta agian iritsi ere ez da egingo Mediterraneo itsasoaz bestaldera. Eta iristekotan, batek jakin herrialdera sartzea lortuko duen: Guardia Zibilak atxilotu zaitzake, eta bueltan bidali zure herrialdera. Zailtasunak gaintuz gero aurkitzen dena ere ez da samurra: ez duzu bertako hizkuntza ulertzen, bere etxean hartuko zaituen ezagun edo lagunik ez izatekotan janaria eskuratzea kostatzen egingo zaizu... Konplexua da.

### Migratzailea izatea umiliagarria dela diozu, are gehiago beltza izanik.

**Niang:** Ase arte errepikatuko dut: migratzailea izatea umiliagarria da, zer esanik ez Saharaz hegoaldekoa bazara. Hori argi ikusten da lana bilatzean, adibidez: lana lortzeko zortea baduzu, lan hori nolakoa izango da? Agian jarriko zaituzte jatetxe baten atzeko aldean, inork ikusten ez zaituen tokian, platerak garbitzen; edo landan lanean, orduko 5 euroren truke. Horrela jardun nuen nik iaz, eta nagusiarekin liskarra izan nuen: 5,5 euro ordaintzen zidan ordua, eta bederatzi ordu lan egiten nuen egunean, bero itzelarekin eta nagusiaren etengabeko garrasiak jasanez. Hori ez da lana, zeure duintasuna galtzea da. Horregatik diot umiliagarria dela migratzaile izatea. Bost axola zein amets eta zein gaitasun dituzun, beltza zara eta beltz gisa hartzen zaituzte. Beltza besterik ez. Kito.

### Ekonomia sozialean aurkitu duzu migratzaileentzako aterabide posiblea.

**Niang:** Bai, migratzaileoi lan merkatuan sartzea kostatzen zaigunez, aukera bat eskaintzen digu. Bartzelonako menteroen esperientzia ezagutzean ohartu nintzen horretaz: beren egoerari aterabide bat bilatzen zioten migratzaile

leek kooperatiba bat abiatu zuten, eta beraiek ziren beren egoeran zegoen jendea, ezer ez zuena, kontratatzen zutenak. Bartzelonan ikusitakoa asko gus-tatu zitzaidan, neu bezala esku-hutsik heldutako jendeak arropa eta zaharberritze kooperatiba bana abiatu zituztela ikusteak antzerako zerbait egitera animatu ninduen. Benetan uste dut alternatiba bat dela. Hori bai, zailtasun asko aurkitzen ditugu bidean, administrazio kontuak-eta.

**"Ez dugu soilik esan behar Mediterraneoan jende asko hil dela, horren zergatia azaldu beharra dago: jende hori bizia aurrera eramateko saiakeran hil da"**

Pape Niang

### Izatez zailtasun horiek eragin dute zuen hasierako kooperatibaren ideia eta amaierakoa ezberdinak izatea, ezta?

**Niang:** Egia, kontua ez da hasierako garbiketa kooperatibaren ideia alde batera utzi dugula, baina beste aukera bat jarri zaigu bidean: nekazaritza kooperatiba. Garbiketa kooperatibaren proiekturako Arteako [Arte herrian migratzaileei aterabideak eskaintzen dien sarea dago] Mikelen babes bilatu genuen. Bilerak igaro ahala, eta ikusirik kooperatiba martxan jartzeko prozesua tratatuta zegoela, Mikelek esan zidan: "Etorri Arteara egiten ari garena ikustera, migratzaileentzat kooperatiba bat sortzen ari gara". Hara joan nintzen, eta egin nahi zutena azaldu eta lursaila erakutsi zidan. "Zuena martxan jarri bitartean, sartu hortxe nahi baduzu", luzatu zidan gonbita. Hala bada, garbiketa kooperatiba martxan jartzera heldu ez garenaz, hortxe sartu gara. Egunen batean garbiketa kooperatiba martxan jartzea lortzen badugu ondo; eta ezin badugu, saiatu garena esan ahalko dugu.

### Nekazaritza kooperatiba honek badu funtzio sozial oso garrantzitsua migratzaileentzat.

**Niang:** Arteako Mikelekin adostu bezala, kooperatibak honetan datza: lehen urtean prozesuan bidelagun izango di-

tugu Arteako sareko kideak, eta behar dugun ororekin lagunduko digute; pixkanaka, kooperatiba geure kabuz eramaten joango gara, eta beraiek erretiratu ahalko dira. Hasieran lursailaren jabea arituko da gurekin, nekazaritza asko dakien gizona bera.

Bertan ari garenak migratzaileak garenaz, kooperatibako paperetan gure izenik ez da ageri, nahiz eta bertan lan egin eta erabakitzen dugunak migratzaileak garen. Helburua da enplegua eta errolda izanik, denbora batera paperak lortzen joatea. ●

ARGIA LIBURUAK

## PAPE NIANG HASIERA BERRI BAT

Mikel Garcia Idiakez



LIBURUA  
SALGAI!  
14€

Eskuratu hemen:  
[azoka.argia.eus](http://azoka.argia.eus)



# “Zer ikasi ugari dugu Euskal Herrian Latinoamerikako nekazarien mugimenduetatik”

BEATRIZ CASADO BAIDES

Bea Casado Baides jatorria Alacanten duen euskal herritarra da. Hegoa institutuaren kooperazio masterrak ekarri zuen Bizkaira 2007an. 2012 eta 2015 urte artean Brasilen bizi izan zen, Lurrik Gabekoen Mugimenduaren (MST) borroketan eta ekimen formatzaileetan murgilduta. Bizipen horietan oinarritzen da iragan urrian EHUan aurkeztu zuen tesi mamitsua. Tesia itxita egonik ere, ez zaizkio itzali Brasilen ikusi eta ikasitakoak zein formazioarekiko interes grinatsua.

 Z. OLEAGA  
 ARITZ LOIOLA

**Zazpi urtetako lan luzearen ostean, berriki aurkeztu duzu tesia. Zer ikertu duzu?**

Ikergaia La Via Campesinako (LVC) antolakundearen formazio prozesuak dira. Alde teorikoan nekazaritzako elikagaien sistema aztertu dut, mundu mailan zein Euskal Herrian. Neoliberalismoa territorioaren eta elikadura sistemaren dominazioan sakontzen ari da, jabetza nazioarteko enpresa gero eta gutxiagoren eskuetan pilatuz. Horretarako zer modu erabiltzen dituen aztertu dugu, eta zer ondorio dakarkion nekazal munduari. Bestetik, LVCKo laborariaren mugimenduek kapitalaren erasoaldiari nola erantzuten dioten ikertu dugu: erresistentzia, territoria disputatzea eta prozesu askatzaileak dira oinarria.

Alde enpirikoan LVCKren Hegoamerikako antolakundearen formazio ereduak eta proposamen pedagogikoak aztertu ditugu. Zehazki Brasilgo MSTrenak eta Estatu mailako bere eskola nagusiarenak —Florestan Fernandez eskola (ENFF)—. Hegoamerikako antolakundeak eta horien barnean MST eta ENFF abangoardia dira arlo horretan.

Euskal Herrira etorritz, Baserritik Mundura ikastaroaren ibilbidea deskribatu eta aztertu dugu. Euskal esparru unibertsitarioan pilotua den esperientzia hezitzailea da, ENFFren eta MSTren metodologia duena oinarri.

***“Agroekologia eta elikadura burujabetza ez dira nekazaritzara mugatzen, jendarte eraldaketarako proposamenak dira”***

**LVCKo antolakundeentzat hezkuntzaren eta formazio politikoaren arloa borroka esparru estrategikoa da. Zergatik?**

Nekazarien antolakundearen testuingurua sakonki eraldatu da. Asko tokiko botere oligarkikoen aurka borrokatzeko sortu ziren iraganean, eta egun aktore sare nahasi bat da aurrez-aurre dutena. Oso sare konplexua da, hari in-

dustrialak, finantzarioak, politikoak, komertzialak, juridikoak, mediatikoak edota militarrek ere txirikordatzen dituen. Alde materiala du —lurren, itsasoaren edo hazien metatzea kasu—; baita immateriala ere —jakintzak, ideologiak, dimentsio kulturalak eta beste—.

Konplexutasun horrek azaltzen du azken hamarkadetan formazioari zentzualtasuna eman izana, ulertzeak formazioa eskatzen baitu. Aldi berean, antolakundearen estrategiek sustatzen dute konplexutasun hori: agroekologia eta elikadura burujabetza ez dira nekazaritzara mugatzen, jendarte eraldaketarako proposamenak dira. Sistema kapitalistaren aurkako borroka da, baina baita kapitalismoarekin bat egiten duen gainontzeko sistemen aurkako ere: patriarkatua, kolonialismoa, antropozentrismoa.

Formazioari betekizun zehatzagoak ere aitortzen dizkiote. Antolakundearen eta horien kideen sendotzea; artikulazioak eta aliantzak sustatzea; edo pizten dituzten borroken mugak eta kontraesanak identifikatzeko gaitasuna









SÉRGIO SILVA / PONTE JORNALISMO



garatzea. Horrez gain, zenbait testu-  
gurutan —nagusiki gobernu aurrera-  
koekin— hezkuntzaren baliabideak eta  
espazio publikoak borrokatzeko aukera  
zabaltu dezake.

### **Zeintzuk dira formazio eta pedagogia eredu horren oinarriak?**

LVCren formazio prozesuak hezkun-  
tza eredu ofizialekin oso urrun daude,  
eredu horrek ez dielako balio. Antola-  
kudetik agronomo bat unibertsitate-  
ra joan, eta zer jasoko du; eredu hegem-  
onikoa, agroindustriaren negozioari lotu-  
rikoa. “Gure antolakundeak eta gure  
agenda politikoa sendotzeko formazio  
prozesu erabilgarriak behar ditugu”,  
hausnartzen dute. Eta konturatzen dira  
horretarako edukiak ez ezik moduak  
ere eraldatu behar dituztela: eredu in-  
tegrala eta bizipenari lotua, eraldake-  
tak sustatuko dituzten pertsonak ere  
eraldatuko dituen aldi berean. Gakoe-  
tako bat da hori: metodologiak parte  
hartzaileen subjektibotasun politikoa  
ukitu behar du.

Formazioaren beste kontzeptio bat  
eraikitzen joango dira, praktikatik. Hezi-  
ketan dimentsio politikoa, kulturala eta  
emozionala uztartzen dituzte, arlo per-  
sonalean zein kolektiboan. Borondatea,  
konplizitatea, baloreak, elkar-zaintza,  
nortasun kolektiboaren eraikuntza, in-  
plikazio emozionala, hori dena landu  
egiten da.

2009an printzipio komun batzuk  
adostu zituzten, bakoitzaren esperien-  
tzia praktikoen trukaketa prozesu luze

baten ostean: formazioak proiektu poli-  
tiko estrategikoari lotuta egon behar du  
eta antolakundearen borroka indartu;  
abiapuntua laborarien praktika sozia-  
la izan behar du, praktika-teoria lotura  
ziurtatzearen; formazio prozesua eten-  
gabea da, une eta espazio guztiek dute  
potziaz formatzailea —bilera bat, mo-  
bilizazioak, topaketak, une informalak,  
irakurketak...—; metodoek sortzaileak,  
kolektiboak, alaiak, ahalik eta horizon-  
talenak izan behar dute, “formak for-  
matzen” baitu; formazioak pertsonen  
dimentsio ezberdinak garatu behar ditu.

***"Nekazarien  
mugimenduek lortu  
dute euren militanteak  
esparru publiko  
ofizialera heltzea edo  
alfabetatzea. Baina  
are garrantzitsuagoa:  
euren metodologiekin  
egitea lortu dute"***

**Euskal Herria nagusiki hiritarra da:  
LVCren proposamen pedagogikoek  
eta formaziozkoek interesik al dute  
herri mugimendu hiritarrentzat?**

Bai, handia. Printzipioen metodo ire-  
ki bat dela presente izanik beti, horiek  
errealitate bakoitzean nola aplikatu era-  
baki behar da. Ez da metodo hezitzailea  
soilik, metodo antolatzailea eta politiza-  
tzailea da aldi berean, mugimendu he-

ritarra sortzeko potentzialtasun handia  
duena. Printzipio orokor gehienak herri-  
pedagogiatik datoz, hortaz, prozesu eta  
harreman askatzaileak eraikitzeko nahi-  
karia duen edozein antolakunde, pro-  
zesuk edo espazioak zer ikasia du metodo  
honetatik. Asko dira ENFFtik pasa diren  
edo MST eta LVC inspiraziotzat dituzten  
mugimendu urbanoak.

Hain zuzen ere, uste dut formazio poli-  
tikoa birpentsatu beharra dugula Euskal  
Herrian, eta horretan daude hainbat mu-  
gimendu. Aipaturiko Baserritik Mundura  
esperientziak gain, Joxemi Zumalabe  
Fundazioa, Emagin, BiziLur eta IPES ari  
dira, besteak beste, ikusmolde politiko  
-pedagogiko hori lantzen.

**Zure lana gurutzatzen duen beste  
kezka bat herri mugimenduen eta  
unibertsitatearen arteko harremana  
da, jakintza herrikoi eta akademikoen  
artekoa.**

Ardatz herritar eta nekazaria duten  
esperientzia hauek eredu hezitzaile  
ofizialarekiko kontrajarriak dira. Uni-  
bertsitate-mugimenduak harremana  
nola planteatzen duten interesgarria  
iruditzen zait. Hemen ez gaude ohituta  
harreman hori gaitasun eta jakintzen  
osagarritasun eta horizontaltasunean  
garatzen: aitortuz antolakunde sozia-  
la subjektu pedagogikoa dela, jakintza  
sortzen duena, akademikoa bezain ba-  
liagarria.

MSTn ezagutu ditudan esperientziak  
hori planteatzen dute, hezkuntza pu-  
blikoa disputatu beharreko territorio





bezala ulertuta beti ere. ENFFk 40 unibertsitate publiko baino gehiagorekin ditu formazio prozesuak eta ikastaroak hitzartuak. Brasileko nekazari mugimenduen borroka prozesu luze baten emaitza da hori, PRONERA izeneko hezkuntza politika publikoa erdietsi zuena. Unibertsitate eta bestelako erakunde hezitzaile ofizialen eta mugimendu herritarren arteko hitzarmenak ahalbidetu ditu; ofizialak, aurrekontuetako partidekin. Nekazarien mugimenduek lortu dute euren militantek esparru publiko ofizialera heltzea edo alfabetatzea. Baina are garrantzitsuagoa: euren metodologiek egitea lortu dute. Orain Bolsonarorekin arriskuan dago hori guztia.

Emaitzak askotarikoak dira, prozesu bakoitzean ezberdinak. Harremana gatazkatsua da, ez da erraza: unibertsitatean MSTko irakasleak edo horren aliatuak daudenean eredu bermatuago dago; beste batzuetan eredu hegemonikoa inposatu da gehiago. Ni Brasiliako campuseko graduondo batean egon nintzen eta han LVCren metodologia erabiltzea lortu zen, ikastaroak unibertsitate kanpotik zein barnetik eraso ezberdinak jasan arren.

**LVCrena eta unibertsitatearena bi logika kontrajarri direla diozu, ez direla uztargarriak. Zer jarrera izan behar du herrigintzak: espazioa disputatu, hura konfrontatu, bertatik desertatu?** Denetarik pixka bat egitearen aldekoa naiz. Disputatu beharra dugu, ahal den neurrian eta zaila izango denaren jaki-

tun; konfrontazioa eta salaketa beharrezkoak dira; espazio autonomoak eraiki behar ditugu.

### Tesian "latifundio akademiko" aipatzen duzu. Euskal Herrian ere existitzen da?

Bai. Ez dira existitzen zentzu eta praktika hezitzaile ezberdinak esparru unibertsitario ofizialean. Bat eta bakarra dago, bankaria, non irakasleak duen jakintza eta transmititzen duen, non unibertsitateak harreman hori bera duen jendartearekin, dimensio arrazional-kognitiboa soilik lantzen duena —bost axola porru eginda baldin bargaude emozionalki—. Nekez aurkituko duzu mahaiak eta aulkiak mugitu daitezkeen ikasgelarik; horrek soilik asko esaten du. Kasualitatez zer edo zer ezberdina egin nahi duen irakasle bat aurkitzen baduzu, oasi isolatua da.

### *"Euskal Herriko unibertsitateetan nekez aurkituko duzu mahaiak eta aulkiak mugitu daitezkeen ikasgelarik"*

Unibertsitatea gero eta merkaturatutago dago. Enpresak dira egun ikerketa gaiak finantzatzen eta erabakitzen dituztenak, botere publikoen gainetik. EHUren "formazio eredu duala" hori da: duala enpresekin batera, ez mugimendu herritarrekin. Hor bai gertatzen dela horizontaltasun handiagoa: "en-

presaren jakintza kontuan hartu behar da eta gure gaitasunak batu behar ditugu helburu komun baten mesedetan". Antolakunde sozial batekin ez duzu horrelakorik ikusiko.

### Ahots ugariak diote etorri badator-kigun jendarte ereduak errealitate latinoamerikarekin antzekotasunik izango duela. Zer ikasia dugu hango borroketatik?

Harrizten nauen gauzetako bat antolakunde antolakuntzarako ahalegina eta gaitasuna da: ezberdinen artean aliantzak sortzeko gaitasuna, etsai komun baten aurka egiteko puntu komun gutxienekoak adostekoa. Horretan Latinoamerikako mugimendu herritarretatik zer ikasi asko dugula uste dut. Ikuspegi estrategikoa, testuinguruaren analisirako eta datorrena aurreikusteko gaitasuna han asko lantzen duten beste gauza bat da, eta hemen gutxiago. Konpromiso militantea eta internazionalismo politikoa sortzeko gaitasuna ere, konpromiso hauskor eta likidoen garaiotan: antolakundearekin konpromisoa daukan jendeak ez dizu huts egingo. Ez da eredu hau: "bi edo hiru militantzia ezberdin ditut eta unerren batean kolapsatu egiten dut", hori landu egiten da. Formazio politikoa ulertzeko moduz ere badugu zer ikasia. Esperientziak eta borrokek sistematizatzeko gaitasunaz beste horrenbeste. Nola aldarrikatuko dugu jakintza kolektiboen sortzaile garena ez baditugu gure praktikak sistematizatzen? Latinoamerikan mugimendu askok bai egin dutela, beraien oinarrientzako material propioa sortzen dute, argitalpenak, analisiak... ●



SERGIO SILVA / PONTE JORNALISMO

# BATXILERGOAN ERE, PROIEKTU BIDEZKO METODOLOGIA

Bi urte dira Gasteizko Armentia Ikastolan Batxilergoa abiarazi zutenetik, eta metodologia aktiboen arabera ari dira lanean bertan ikasle-irakasleak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan hasitako bideari jarraiki.

 MIEL A. ELUSTONDO  
 ZALDI ERO

**E**kainaren 16an ospatuko da aurtengo Araba Euskaraz jaia, Gasteizko Armentia Ikastola antolaitzaile dela, *Gertu* izenburupean. Ikastolara jo dugu herrialdeko ikastolen eguna kari, baina gai batek arreta emana: Batxilergoan darabilten proiektukako metodologia.

Metodologia aktiboa ez da gai berria irakaskuntzan eta, esaterako, proiektu bidezko metodologiak bidea egina du gure herrietako hainbat ikastetxetan. Haur Hezkuntzako lehen zikloan aplikatu dute batean, DBH-ko lau ikasturteetan bestean... Izango da proiektukako metodologia has eta buru garatua duen ikastetxerik, baina, gehienbat, saioak egiten ari dira han eta hemen. Oro har, errazago eta gehiagotan baliatu dituzte proiektuak irakaskuntzaren oinarrizko ziklo eta mailetan, goikoetan baino. Honenbestez, aintzakotzat hartzeko praktika da Gasteizko Armentiarena, proiektuka jarduten baitute bertan Batxilergo mailako ikasle-irakasleek. Ikastolako zuzendari Agurne Barruso eta Batxilergoko arduradun pedagogiko Iruñe Urtaran izan ditugu solaskide.

Metodologia aktiboa bat bera izanagatik ere, dena delako irakaskuntza

-mailari egokitu beharrekoa da, eta derrigorrezko irakaskuntza osoan, Haur Hezkuntzan hasi eta DBHraino. Agurne Barrusok esan digunaren arabera, eta euren kasuari dagokionez, Lanbide Hezkuntzan du oinarri metodologia aktiboak: "Lan-merkatutik gertuen da goen ziklo formatiboa izaki, enpresekin harreman zuzena du. Enpresek ez dute nahi edukiz gainezka datozen langileak -edukiak han eta hemen baitaude kontsultagai, Internet, eskuliburu eta beste-lakoetan-, ezpada gaitasun jakin batzuk dituztenak, arazoan aurrean haietatik irteteko estrategiak garatuak dituztenak, talde-lanean jarduten dakitenak". Eta Lanbide Hezkuntzak urratutako bideetik jo zuten Armentia Ikastolan orain bi urte, proiektukako metodologia Batxilergoan aplikatzeari ekin zioten garaian. "Ikasleak Eki egitasmoan lan egitetik zetozen [proiektutan oinarritutako materiala] DBHko lau urteetan, eta bide horri segida eman beharra zegoen". Batxilergo erabat memoristikoa baztertu, irakasle orojakilearen irudia ukatu... eta bide berrietan barna abiatu ziren Huhezi, Ikastolen Elkarte eta Lanbide Hezkuntzako zenbait eragileren laguntzaz.

## IKASLE-IRAKASLEEN ROLA

Agurne Barrusok esan digunez, metodologia aktiboak uko egiten dio irakasle orojakilearen irudiari, eta, hain justu, horretaz ari da ikastolako arduradun pedagogiko Iruñe Urtaran: "Irakaslearen rola aldatu egiten da metodologia aktiboa darabilgunean, eta irakaslearen rolaekin batera, ikaslearena, ikasle pasibo izateak ez du balio. Irakaslea ez da eskola magistralak ematen ibiliko, baizik proiektua diseinatzen eta planifikatzen, eta ikasleei beren ikaskuntza prozesuan laguntzen, orientatzen, zalantzak argitzen, ebaluatzen... Ikaslea bera da ikaskuntzaren protagonista, berak egin behar du lan". Eta lan egin, batean taldeka, bestean bakarka, nahiz eta proiektuaren azken emaitza talde-lanaren emaitza izango den. Barrusok: "Bizitzako edozein eremutan ere, posizionamendu indibiduala ezin baztertuzkoa da. Taldeak ez du esan nahi norbanakoren ekimena ezeztatzea. Pentsatu ere ez".

Irakaslearen rola aldaketaz, beselako oharririk ere egin du arduradun pedagogikoak: "Irakaslea, itxuraz, ez da hain aktibo, baina guztiz aktibo jardun behar du ikaslearen lanaren jarraipena





### BATXILERGOKO LEHEN MAILAKO IKASLEAK

EZKER-ESKUIN: LARRAITZ ORTEGA, MADDI SAEZ ETA LIERNI ELORZA.  
 "PROIEKTUEN BIDEZ, BESTELA IKASITA BAINO GEHIAGO IKASTEN DUGU".

egiten, zuzenketak egiten", proiektua erreitik atera ez dadin, alegia.

### MATERIAL DIDAKTIKOA

Irunen Urtaranek esan digunez, irakasle-ikasleek hautatzen dituzte proiektuak. Hautatuak hautatu, irakasleari dagokio material didaktikoa diseinatzea. Iaz ekin zioten lantegiari, Batxilergoko lehen mailan, eta bide horretan dira gaur egun, hura are gehiago lantzen. "Iaz, praktikan jarri eran diseinatu genuen materiala: gaur diseinatu, bihar aplikatu. Aurten, astindu handia eman diogu iazko materialari, badakigu eta zerk funtzionatzen duen, zerk ez". Zuzendariaren hitzetan, merezimendu handia du iaz materiala diseinatzen jardun zuen taldeak. "Metodologia honek irakasleari bidean ondo lagunduko dion irakaslea eskatzen du, ez halako edo halako gaitan aditua dena. Proiektukako metodologiaren arabera, irakasleek errotik aldatu behar izan zu-

ten euren rola. Gainera, eskola eman eta material didaktikoa ere sortu behar izan zuten". Gainezkako lan nekagarria, Urtaran oroitzen denez: "Lan handia egin genuen, baina gustura gaude denok, irakasle eta ikasleok".

### EBALUAZIOA

Metodologia aktiboa Batxilergoan erabiltzeak oztopo berezirik badu Hego Euskal Herriko hezkuntzan: unibertsitate sartzeko atariko frogak. "Selektibitatea oso modu tradizionalen pentsatuta dago, eta proba modu hori era ez-tradizionalen lantzeak beldur ematen du. Batxilergo bigarren mailan, proiektu arinak egin ditugu selektibitatean aztergai diren ikasgaietan, eta eskola magistral askoz gehiago ere eman ditugu. Selektibitatean sartzen ez diren gaitan berriz, proiektuak ari gara lanean. Baina, horixe, ez gara proiektuak ari ikasgai guztietan. Esaterako, iaz, lehen mailan, bi

gai diseinatu behar izan nituen proiektuak. Aurten aldiz, bakarra, gaztelania, eta bertan, literaturari dagokion zatia", azaldu du Irunen Urtaranek.

Barruso zuzendariaren iritziko, ebaluazioa da giltza, muga dira azterketak. Hor dira aktak eta beste. "Eta aktan zenbakia jarri behar duzu, ikaslearen ikasurte osoko lana laburtzen duena". Are gehiago, Batxilergoko urteetan, selektibitatea hor dagoelarik: "Notek pisu handia hartzen dute, unibertsitate sartzeko halako zenbaki jakin bat behar baitu ikasleak. Ikaslearen esijentzia duzu, batetik; gurasoena, bestetik... Irakasleek iaz lan handia egin zutela esan dugu, eta gurasoek ere konfiantza izan zuten, ikasleak Armentia Ikastolan matrikulatu baitzituzten, proiektu berri honetan. Nik esango nuke oso auzartak izan ginela metodologia honetan abiatzen, halako esijentziak dauzkan etapen".



EZKER-ESKUIN:

**IRUNE URTARAN**

IKASTOLAKO ARDURADUN PEDAGOGIKOA

**AGURNE BARRUSO**

ZUZENDARIA

## ASTINALDIA

Orain bi ikasturte ezarri zuten Batxilergoa Armentia Ikastolan –28 ikasle dituzte bigarren mailan, gela bakarrean, eta 45 lehen mailan, bi gelatan–, eta erabakiak ikastola osoan eragin du, zuzendariaren irudiko: “Batxilergoan metodologia aktiboen alde egiteak astinaldi handia ekarri du ikastolara, beheko etapa eta ziklo guztietara. Haur Hezkuntzan eta Batxilergoan metodologia aktibo bidez ari garenez, erne dabilta tarteko maila guztietan”. Belaunaldi berriak

“

***Ikasleak azterketa  
gehiago eskatzera ere  
iritsi ziren, proiektuen  
bidez ere ikasten ari zirela  
jabetu ziren arte***

**Irune Urtaran**

beste modu batera datozela ikusi dute irakasleek, eta, haiekin batera, gurasoek.

Arduradun pedagogikoak adierazi digunez, “harrera positiboa izan da, baina ikasle, irakasle eta gurasoen aldetik bada urduritasunik, ikasleak selektibitateko ondo prestatuta irtengo ote diren. Lehenengo urtean, esaterako, ikasleak azterketa gehiago eskatzera ere iritsi ziren, ikusiz beren kideak, beste ikasleak batzuetan ari zirenak, azterketak besterik egiten ez zituztela, gauzak jo eta ke buruz ikasten ari zirela... Proiektuen

bidez ere ikasten ari zirela jabetu ziren arte”. Agurne Barrusok berretsi ditu Urtaranen hitzak: “Ariketa esplizituak egin behar izan genituen ikasleek kontura zitezten benetan ikasten ari zirela”.

## GELAREN KONTZEPZIOA

Dudarik gabe, metodologia aktiboak zabaltzeak sistemaren berrikuspen sakona ekarriko lioke Administrazioari –berau zeinahi dela ere–, diru inbertsio handia, irakasleen prestakuntza, espazioen berrantolatzea... Armentia Ikastolan, esaterako, iraulia dute gelaren kontzepzioa, zuzendariak adierazi digunez: “Gela guztietan dugu bi gela bateratzeko aukera, edo ikasleen zirkulazio librea ahalbidetzen duen egitura bermatzekoa. Espazioak berrantolatzeak aldaketa handia dakar. Gogoan dut iaz, ikastolen jardunaldi pedagogikoetan, hizlari katalan batek esandakoa: alegia, kartzelak, ospitaleak eta eskolak irizpide berarekin eraikita daudela. Korridoreak eta gelak dira funtsean. Hori bisualizatzeak angustia sortzen du. Ezin da horrela”.

## IKASLEEK ZER DIOTE?

Lierni Elorza, Larraitz Ortega eta Madi Saez Armentia Ikastolako Batxilergo lehen mailako ikasleak dira. DBHn Eki materialak baliatu zituzten. Proiektu gehiago, landuagoak eta zailagoak zaizkie Batxilergokoak; eduki berriak ibili behar dituztelako, oro har. Proiektuetan jarduteak duen onura aipatu dute: “Taldekideekin iritziak partekatu ohi ditugu, bestelako ikuspuntuak jaso. Ez dugu dena buruz ikasi behar, informazioa bilatu eta aurkitzea da lana,

gaia geureganatzea. Proiektu bidez, bestela ikasita baino gehiago ikasten dugu, azkenean eguneroko bizitzan aplikatu behar dugulako proiektuan landutakoa. Proiektu gehien hizkuntza ikasgaietan egiten ditugu. Matematikan, fisikan, kimikan... ezinezko zaigu proiektu bidez lan egitea, eta hauek azterketa gehiago egiten ditugu. Proiektuak lantzen ditugunean, taldekako lana, bakarkakoa, etxeko lanak... denetarik egiten dugu. Ebaluazioa

“


***Batxilergoan  
metodologia aktiboen  
alde egiteak astinaldi  
handia ekarri du  
ikastolara, beheko etapa  
eta ziklo guztietara***

**Agurne Barruso**

errubrika bidez egiten dugu, Excel taulak baliatuz, geure buruak ebaluatuz, eta kideak ere bai, zenbait irizpideren arabera: edukiaren azalpena, ahozko eta gorputz adierazpena, lanaren garapena... Ikasleok ez ezik, irakasleek ere ebaluatzen dute gure lana, hala emaitza nola prozesua. Guk nahiago dugu proiektuak ikasi. Lehenengo moduan bezainbeste ikasten dugu, edo gehiago, eta askoz ere praktikoagoa da ikaskuntza. Eskolak ere ez dira aspergarriak, uneoro lanean ari baikara”. ●



# Salaminako emakumeak



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

Salamina uhartera, K.a. 480. Bigarren Mediar Gerra betean, persiarrek Grezia inbaditzeko egindako bigarren eta azken ahaleginean, bi aldeen arteko itsas gudua inflexio puntua izan zen: ordurarte persiarrak aurrera egiten ari ziren, baina gudua greziarrek irabazi zuten eta handik gutxira persiarrek amore emango zuten. Bi emakumek protagonismo berezia izan zuten Salaminako guduan.

Artemisia I.a Kariakoa greziarra zen sortzez; Halikarnason jaioa, Karia eskualdeko agintaria zen. Baina persiarren alde aritu zen, gudu-ontziko kapitain gisa. Etsaien aldeko hautua egin arren, Herodotok haren adimena eta abilezia goraiatu zituen. Hilabete batzuk lehenago, persiarrek Atenas hartu zutenean, Artemisiaren jarduna funtsezkoa izan zen. Salaminan bost ontzi izan zituen bere kargura, eta pasarte jakin batek adierazten du bere trebezia: gudu betean, bera zegoen ontzia beste ontzi persiar batzuen artean tratatuta geratu zen eta ontzi greziar bat hurbildu zitzaizen erasorako prest; orduan, Artemisiak ontziko bandera aldatu zuen eta ontzi persiar bat erasotzeko itxurak egin zituen; ontzi greziarra beste ontzi batzuen bila joan zen. Gudua galdu arren, Artemisia eta bere ontziak onik atera ziren.

Greziarren bandoan, Hydna Scione-koak ezkutuko lana egin zuen, urpeka-



SALAMINAKO GUDUA (WILHELM VON KAULBACH, 1868). KOADROAN EMAKUMEA BIKTIMA GISA AGERTU ARREN, EMAKUME BATZUEN PARTE-HARTZEA FUNTSEZKOA IZAN ZEN GUDUAN.

ria baitzen, Scyllis aita bezala. Pausanias historialari greziarraren arabera, persiar flota Salaminara abiatu baino lehen, aita-alabak urpean igerian etsaien ontzietaraino iritsi ziren eta amarradurak eta ainguretako sokak moztu zituzten. Ontzi batzuk hondartuta, beste batzuk elkarren kontra talka eginda, persiarrak ahulduta iritsi ziren gudura. Esker onez, Hydna eta Scyllisen estatuak jarri zituzten Delfosen.

Jerjes errege persiarrak ere Artemisia goretzi zuen. Gainera, haserre, guduaren

balantzea egin zuenean, plurala erabili zuen: "Nire gizonak emakumeak bailiran jokatu dute eta emakumeek, aldiz, benetako gizonak bezala egin dute borroka". Beraz, ondorioztatu daiteke Artemisierena ez zela salbuespena izan, persiar ontzidiko emakumezko kapitain bakarra izan arren, persiarren aldean behintzat emakume gehiago borrokatu zirela –eta Jerjes ez zela gai izan emakume batzuen lana goraiatzeko emakume guztiak guxtietsi gabe–. ●



## Victor Hugo eta Joker

Victor Hugo idazleak (1802-1885) bere obratik gehien bereizten den, istorio berronko ia surrealista idatzi zuen 1869an: *L'Homme qui rit* (Barre egiten duen gizona) eleberria. Gwynplaine protagonista erregearen aginduz bahitzen dute eta zirujau batek aurpegia desitxuratzen dio, betiko irribarre egin dezan.

1940an Batmanen sortzaile Bob Kane eta Bill Fingerrek superheroiaren nemesi ezagunena sortu zuten: Joker. Eta ez zuten ezkutatu Victor Hugoren pertsonaia inspirazio iturri izan zutela; Joker agertu zen lehen komikiari *The Man Who Laughs* izenburua jarri zioten, Victor Hugoren nobelaren izen bera. ●

# DOLDA ETA GROSA



**JAKOBA ERREKONDO**  
 JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Dolda-belarra, *Sempervivum Tectorum*. Belarriko mina kentzen omen du eta teilatuetan jarri izan da, tximistetatik eta ekaitzetatik babesteko.

**G**ero eta dolda gutxiago antzematzen da kalean. Alkoholak eragindako dardarizoa da dolda. Ez da kalean grosarik ikusten. Grosa, ardo beltzetik edan duenaren ezpainetan geratzen den orbana da. Ez beltza edo alkohol gutxiago edaten delako, ez; mokoia zuritzen, txorrosten ari zaigu eta ardo eta alkohol garestiagoak eta apainagoak, dotoreagoak hartzen ditugu, eta ahal denean ezkutuan. Nola azaldu ba grosa eta dolda!

Dolda-belarra ere bada, *Sempervivum tectorum*. Izen horrekin, alkoholak eragindago dardarari aurre egiten laguntzen duen belarra dela esan daiteke. Ba ez, belarriko mina kentzen omen du, eta han-hemen beharri-belar deitzen zaio.

Dolda-belarrak ikaragarritzko istorio luzea du gure aldamean, gure altzoan.

Izenak dioen eran, egarri eta eguzki galda txarretan ere erraz iraun dezake bizirik, *Sempervivum*, eta teilatuetakoa da, *tectorum*. Teilatuak, izan ere, eguzki gordinenean eta lehor-lehor daude. Izo-tza ere erraz eramaten du.

Landare hau majiazkoa omen da. Teilatuan jartzen da, teilen gainean, lehor eta bero egon dadin, eta aterbean hartzen duen etxea babesten du. Tximistetatik eta ekaitzetatik babesten du. Agi danean, Karlomagno VIII-IX. mendeen bidegurutzean teilatuetan lantzea gomendatu zuen. Frantsesez, "*joubarbe des toits*" eta "*barbe de Jupiter*" esaten diote, teilatuetako Jupiterren bizarra. Zeruaren jainko hori tximistaren eta trumoiaren nagusi zela uste zen garaietako arrasto. Ingelesezt, "*thunderplant*" esaten diote, tximistaren landarea, eta

"*roof foil*", teilatuko geruza; baita sendatzeko hostoa ere "*healing blade*"; izan ere, historian zehar, milaka urtean, alegia, sendabelar ezagunenetako bat izan da, hortik gure beharri-belar. Gaztelaniaz izen mordoia du, tartean "*sanalotodo*" eta "*alcachofa de gato*"; landarearen itxurak gogora dakar orburuaren lorea, eta teilatuetan, katuen gustuko tokietan bizi denez...

Ingelesezt beste izen xeble bat ere badu: "*welcome home husband though never so drunk*", ongi etorri etxera, senar, baina arren inoiz ez hain mozkor. Izen hori erabiltzeko, dolda eta grosa izango zen etxeetan. Borrokaren sua ere bai, dolda-belarrez jantzitako teilatupeetan. Tximistarenetik bezala, su horrengandik ere babesten zuelako deitzen ote diote katalanez "*matafoc*"? ●



EKAINAREN 8AN SAGARDO EGUNA HENDAIAN

# EUSKAL HERRI OSOKO SAGARDOAK, ASKO IPARRALDEKOAK



GARAZI ZABALETA

Zenbait urtetan deskantsua hartu ondoren, etenik gabe egingen duten laugarren edizioa izanen dute aurtengoa. Aspaldidanik datorren ekimena da asteburukoa, dena den: Lapurdiko hirian tradizio handiko jaia da sagardo eguna. Hainbestekoa, non Jesus Arzallus antolatzaileak kontua jada galdua duen: “Gutxi gora behera hogeigarren edizioa izanen dela aurtengoa kalkulatzan dut”, azaldu du.

## EUSKAL HERRI ZABALEKO ZAPOREAK

Ohikoak izaten dira sagardo egunak garaiotan herri askotan, baina Hendaiaikoak badu berezitasun bat: Euskal Herri osoko sagardotegiak gonbidatzen dituzte. “Hamabi sagardotegi ekarriko ditugu: Lapurditik bost etorriko dira, Arabatik, Bizkaiatik eta Nafarroatik bana, eta Gipuzkoatik lau”, dio antolatzaileak. Hala ere, Ipar Euskal Herriko sagardogintzari eman nahi diote protagonismo berezia. Izan ere, espero gabe sorpresa polita hartu zutela kontatzen du Arzallusek: “Gu ekimen honekin hasi ginenean uste genuena baino dezentez sagardogile gehiago aurkitu genituen hemen”. Horietako zenbaitek sagardotegi bezala funtzionatzen dute, baina beste askok etxerako egingen dute sagardoa.



## FESTA HERRIKOI ETA KULTURALA

Hendaiaiko Sagardo Egunaren antolatzailea Baleak Kultur Elkarteak da baina eskualdeko beste talde ugari hartzen dute parte egunean: Mintzaiak euskal elkarteak, Entzun koralak, Txikitxoko haurtzaindegia, Gure Ikastola, Hendaiz Gazte Asanblada, Rugby kirol elkarteak, LAB sindikatua, Antxeta Irratia, Biriaturko Ikastola edota Hendaiaiko presoen aldeko taldeek, esaterako, pintxoak eskaintzen dituzte sagardotegi bakoitzaren

gunean. “Guk edalontziak salduta ordaintzen ditugu gastuak, eta elkarteek berriz pintxoekin ateratzen dute sosa”.

Sagardoa eta pintxoak laguntzeko trikitilariak, txalaparta eta bertsolariak egonen dira ekainaren 8ko arratsalde osoan zehar. Zer jan, zer edan eta zer entzuna egonen da beraz asteburuan Hendaiaiko ekimenean. Arzallusek dioen bezala, elkarlanean antolatutako festa herrikoia eta kulturala izatea da egunak duen gauzarik politena. ●

# Basherri

GIPUZKOAKO KONTSUMO TALDE ETA KOOPERATIBAK

info@basherrisarea.eus · www.basherrisarea.eus

sarea

HEMENGOA ETA EKOLOGIKOA, GOZATU GUREAZ!



## 1981eko martxoaren 8a



**KOLDO IZAGIRRE**

**T**heresa bere hartan zegoen, “Ez nauk joanen, ez itzak utz eraman nazaten!” berriro eta berriro esanaz. Gizonak so egiten zion erantzun gabe, ezpainak isilik higituz, There-saren bihotzaren elkarrizketari arimarekin ja-rraikitzen zitzaizolarik. Bet-betan haurrak oi-hu zuen: “Ez nauk joango! Nahiago diat hil!”.

Haurra nerabezaroaren atarian da eta maita-sun hertsu bat bizi du aitabitxia duen gizonezko heldu batekin. Gizarteak, ordea, ez du onartzen ahal horrelakorik. Elkar maitatu ezin horrek, gauza jakina da, herio nahikundea ekar lezake, gaizto guztiengandik betikoz urruntzearen. Irakurlea liluratu egin zuen Jon Miranderen ausardiak. Pedofilia, zaflada bat gure literatu-raren masail garbian.

*Zurbildu zen gizona; begiak jasan zituen nes-katoarengandik, leihotik zeihar urruti so egiten zuela, urrutira. Atzera haren aldera inguraturik, azkenean, esan zion geldiro: “Baina, Theresa, ez dakin zer dionan, heriotzea zer den ez dakin gaixo horrek”. Haurrak burua astinduz “Bai ba-zekiat!” erantzun zion berehala.*

Kritika, oro har, oharkabean iragan zen suizidioaren gainetik. Itxaro Bordak, *Haur besoetako-ri* –eta Jon Miranderi– egindako irakurketa zorrotz sakonean, patetikoa iritzi zion amaie-rari: haurrak bere buruaz beste egiten du Gaz-tedi Lurra erdiestearren, haren amorante zint-zo suharra bizirik ateratzen dute lehorrera. Sinbolo bat izaten ahal zen hura ere, helduon koldarkeriaren eta dominazio harremanen is-pilua, edo Miranderen beraren mezua, ausaz, hurrengo saioan lortuko zuena iragarritz.

Hainbat gomendio eta protokolo daukate ka-zetariak suizidioaren berri eman behar dute-netarako, gai delikatua da. Ez dakigu buruaz beste egiten duten nerabeen tasa igotzen de-netz *Haur besoetako*a irakurririk. ●

BIXENTE AMEZTOY OLASAGASTI

## Azalak oihal modura



Bixente Amezttoy 1978an. Argazkia: ARGIAko artxiboa.

**MIREN OSA GALDONA**

**B**adira 18 urte Bixente Amezttoy Olasagasti (Donostia 1946- Villa-bona-Amasa 2001) margolaria zendu zela. Artearen peskizan egin-dako ibilbide oparoagatik oroitua, be-launaldi eta gizarte eredu oso baten iruditegia islatu zuen bere artelane-tan. Surrealismoa oinarrian hartuta, maiz jarri zituen kultura eta industria parez pare; kontrajarriak lehen begi kolpean, elkarbizitzara kondenatuak egunerokoan. Horra Amezttoiren ildo artistikoaren azalpen labur eta azale-koa. Artista, ordea, ez zen koadro eta oihaletara mugatu: *Zeruko Argiaren* azal ugariaren sortzailea izan baitzen 70eko hamarkada bukaera aldera Bi-xente Amezttoy.

Bai Elixabete Garmendiari bai An-ton Olariagari eginiko elkarrizketetan biek aipatu zuten Bixente Amezttoiren maisutasuna aldizkariari lehen orria gorpuzterako orduan, eta biak bat ze-tozen bera bezalako diseinatzaile eta artista alboan izatea “luxua” izan dela. Joseba Sarrionandiak ere bere omenez idatzi zuen 2013an *Bixente Amezttoy-ren azalak* artikulua, eta anekdota di-bertigarrien artean, artistarenganako miresmena eta maitasuna antzeman daitezke. Hona idazleak margolariaz

idatzitakoak: “Eta horrela, astebete pa-satu eta denboraren laburpen lez hel-tzen zen Bixenteren azala.

Asterik aste, ustekabekoa, harri-garria, ederra izaten zen Bixenteren portada. Eszena lasaiak, lasaitasun ho-rretan zerbait gertatzeaz zegoelako ai-rearekin.[...]. Ikonografia susmagarria, errealitatearekiko mesfidantza era-giten zuelako. [...]. Behin, pertsonalki ezagutu nuen, aldizkariaren gordeleku kaputxinoan. Ez zen handinahia. Apa-la, berba egin baino gehiago entzuten zuen. Bai pinturan eta bai besteetan ere bila ari zela ikusten zen.

Umorea ere bazuen, umiltasunez egi-ten zuen barre, lehenengo bere buruaz egin behar balu bezala aske eta adiskide-tasunez egiteko. Harekin egon eta, umil-tasun harekin, inpresioa ematen zuen halako koadro haietako batetik irten-dako pertsonaia zela. Figura bat, lekuz kanpo, askatasunaren bila, izateko derri-gorren kontra, izateko aukeren bila”.

Lankide eta adiskide izandakoen-gandik jasotako hitz ederrez osatu da uda bezperako zutabea. Surrea-lista xamarra agian, baina ez ote luke kutsu bereko zerbait irudika-tuko Amezttoy egoera berean egon ezker? Batek daki! ●



# Historikoeak kontatu dute historia

## ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

**S**an Telmo Museo atarian jarri eta *Zerukotik lurrekora* zikloko emanaldi bakoitzaren ondorengo erreakzioak biltzen saiatu naiz tarte txiki honetan.

Koldo Izagirrek egin zion sarrera zikloari, eta denak emozionatuta atera ziren, idazleak esandakoak errepikatu eta errepikatu. 1958-1968 bitarteko testu aukeratu batzuk irakurri zituen, "baina ze testu!" zioen batek, "ze abildade duen tipoak harpidetzak, langile klasea edo euskara bezalako gai desberdinei *Zeruko Argiaren* bidez lotura eman eta jendarteari osotasunean begiratzeko", eta horrelako loreak bota zituzten. Hautatutako iritzi artikuluen lerro eta lerro artean bere aportazio txikiak egin zizkion entzuleari, umore finez.

Bigarrena Antton Olariaga eta Joseba Larratxe Joseviskyrena izan da, marrazkiei eta ilustrazioari lotua. Olariagak azpimarratu zuen garai bakoitzeko estiloaren eragina, keinu kulturalak, testuinguruaren ezagutza... eta Museoaren atarian oraindik ere barrez ari ziren hitzaldian egondakoak, oroituz nola azaldu zuen garai bakoitzean zer marraztu zuen pantaila handian ilustrazio haiek ikusi eta marrazkilariak bere iruzkinak egiten zituen bitartean. Joseviskyren ibilbidearekin ere txundituta zegoen jendea, komikigintzatik aldizkariko ilustrazio erreala-goetara, eta, aditu ahal izan nuenez, bien arteko ironiaz betetako elkarrizketak ere puntu polita eman omen zion hitzaldiari.

Ostiralekoa sentitua izan zela zirudien. *Enpeinatzea ez bada libre* kantaldia. Baten bati malkoren bat edo beste ikusieron. "Mundiala", entzun diot bati, "en-



*Zerukotik lurrekora* zikloa aurkezteko egin zen prentsaurrekoaren egunean ateratako talde argazkia: zikloan parte hartu duten hizlariak eta Argiako langile zenbait.

peinatu beharraren ideia, ze ona", bota du beste batek, "lan asko zegoen hor, sortutako bertsoak, errimak...", azpimarratu du hirugarrenak, "eta bota dituzten mezuak, esateko manierak? Gordina bezain emozionantea", errematatu du ondotik laugarren lagunak.

Errematea eman dio Elixabete Garmendiak, gerra aurreko euskarazko *Eguna* egunkaritik Auzitegi Nazionalako Del Olmo epaileak *Euskaldunon Egunkaria* itxi arteko erreposoa egin du euskarazko prentsari lotutako hitzen zerrenda eginez. *Jazarria izatea, gutxitua, profesionalizatu*

*gabea, militantziari lotua...* eta antzeko hitzak edo espresioak azpimarratu ditu azalpenak ematen ari zen bitartean, eta kanpoan aipatu da "oso beretik" hitz egin duela, "bere esperientziak erakutsitakoaren azalpena" izan dela.

ARGIATIK oso eskertuta daude saio haue-tara gerturatu diren lagun guztiekin, eta "luxua" hitzarekin deskribatu dute. "Gure betiko jendea izan dugu bidelagun, eta plazer bat da horrelako ekitaldiak haiekin partekatzea", azaldu du kide batek. Eta San Telmo Museoko langile guztiei ere eskerrik asko, emandako tratuatik. ●

**AZOKA**  
AZOKA.ARGIA.EUS

**NOLA DA  
MUSUTRUK?**

**Ostegunetan 10:00etan** jartzen ditugu *Argia Jendea*-ren zat musutruk dauden gaiak eta zozketarik gabe, bizkorren eramaten dituenarentzat dira. Ondasunak banatu ditza-gun, urtean musutruk gai bat hartzea eskatzen da.



**BIDEA URRATU DUTEN BERTSOAK**  
56 orrialdeko bertso sorta

# ETA, ZINEA PELIKULAK BAINO GEHIAGO BALITZ?

Zine eskola batean pentsatzen dugunean askotan pelikulak datozkigu burura zuzenean. Zein pelikula egiten irakasten diete zine eskola horretan? Zein pelikula egingo dituzte zine eskola horretako ikasleek? Zeintzuk izango dira etorkizuneko pelikula horiek?

 LUR OLAIZOLA LIZARRALDE  
 ELIAS QUEREJETA ZINE ESKOLA

Sarrerako galdera hori erantzuten saiatzeko, irudimen ariketa bat proposatzea gustatuko litzaidake:

## 1. SEKUENTZIA: BARRUAN – ZINE ESKOLAKO GELA BAT – EGUNEZ

Mikel Gurra zine zuzendaria zine eskolara iritsi berri da. Teknikariak lagunduko dio oraindik hutsik dagoen aretoan ordenagailu eramangarria proiektorera konektatzen. Pixkanaka ikasleak agertzen joango dira. Baten batek baso bete kafe darama eskuan asteleheneko lehen orduko klaseetan ikusi ohi den bezala. Guztira hamabost ikasle dira, hogeitahogeita bost bat urtekoak. Mahai handi baten inguruan eseriko dira guztiak. Sorkuntza espezializazioko taldea da.

Nola irakasten da pelikulak egiten? Elías Querejeta Zine Eskolak bederatzi hilabete daramatza martxan bere lehenengo berrogeita bost ikasleekin eta galdera zerrenda horri beste bat gehitzera behartuta gaude: eta zinea pelikulak baino gehiago bada?

Mikel taldearekin biltzen den lehenengo aldia den arren, orain dela aste batzuk bidali zien beraiekin lantzea gustatuko litzaiokeen materiala. Ez libururik, ez artikulurik, ez filmik. Mikelek bere lehenengo film luzearen gidoiaren azken bertsioa bidali zien ikasleei: *Suro* (Artelazkia). Zinegileak hilabete luzeak daramatza *Suro* pelikula idazten eta prestatzen. Dagoeneko aktoreak eta ekipoa itxita ditu eta dena ondo badoa, 2020ko udan filmatuko du. Gidoiaren azken fasea lau eskutara idatzi du eta pozik dago azken bertsioarekin. Ikasle taldearentzat ariketarik politena iruditu zaio gidioa beraiekin partekatzea, ikasle bakoitzak nolabait gidioa bere egin dezan, nahi duen guztia hankaz gora jarritz. Ekainean aktore protagonistetako bat joango da zine eskolara eta Sorkuntza ikasleetako bakoitzak *Suro* gidioan oinarritutako eszena bat filmatu beharko du berarekin, antzezlea zuzenduz eta eszena

bakoitzaren sorkuntzak dakartzan erabaki guztiak hartuz. Mikelek gidioaz gain, taldearekin partekatu ditu bere beste lan-material batzuk ere: lokalizazioak, aktoreekin egindako saioak, erreferentziak, ideia eta zirriborroak.

Ikasleak jabetu dira daukaten zor-teaz: Mikelek sorkuntza prozesu bat zuzenean bizitzera gonbidatu ditu. Filma oraindik existitzen ez denean, filma oraindik bere irudimenean bakarrik eusten denean, behin eta berriro oraindik zalantzek jan zaitzaketen.

## 2. SEKUENTZIA: BARRUAN – ZINE ESKOLAKO LABORATEGIA – EGUNEZ

Silvia Casagrande eta Clara Sánchez-Dehesa artxibo adituak laborategian daude







material filmikoarekin lan egiteko tresnaz inguraturik: lotailuak, argi mahaiak, bobinatzeko makinak, mobiolak eta abar. Mahai handiaren erdialdean, beraien parean, herdoildutako zenbait lata biribil handi daude. Biek eskularruak jantzita dauzkate. Bost ikasle iritsiko dira. Urduri xamar daude. Pozik. Kutxa batetik eskularruak hartu eta hitz egiten duten bitartean jantziko dituzte. Egun berezia da. Joan den udan Javier Odériz errealiadore nafarrak bere artxibo pertsonalean zituen 1924. urteko bi film muturen bobina batzuk zine eskolara eraman zituen nahi izan ezkeru ikertu zitezen. Oso pelikula bereziak dira. Bata, *The Price of the Party* estatubatuarra, Charles Giblynek zuzendua; Amerikako Estatu Batuetako Kongresuko liburutegiaren arabera, munduan dagoen kopia bakarra da. Bestea, *Die Vier letzten Sekunden des Quidam Uhl* alemaniarra. Zuzendaria

espresionismo alemaniarraren aitzindarietako bat izan zen, Robert Reinert. Oso film bereziak dira garai horretan egin ziren ekoizpenen %80a desagertu baita. Nitratozko pelikulak ziren eta nitratoa material sukoienetako bat da –Quentin Tarantinoren *Inglourious Basterds*-en ikus daitekeen bezala–. Beraz, mahai handiaren erdialdean, beraien parean dauden herdoildutako lata horiek bitxikeria bat gordetzen dute. Bitxikeria delikatu eta hauskorra, oso erraz sutan kiskali daitekeena. Gaur lehenengo aldiz irekiko dituzte herdoildutako lata horiek.

Bost ikasleak Artxibo espezializaziokoak dira eta *This film is dangerous* ikerketa proiektuan parte hartzen dute. Zine eskolan egon diren lehenengo hilabeteetan bi pelikula hauen inguruko ikerketari ekin diote munduko zenbait artxiborekin hitz eginez eta bi filmei

buruzko ikerketa historikoan murgilduz. Besteak beste, badakite pelikula alemaniarraren beste bobina batzuk Municheko Filmmategian daudela eta zine zuzendariak efektu bereziak egiteko makina bat asmatu eta eraiki zuela. Pauso horiez gain, Artxibo espezializazioan materiala aztertzen, konpontzen eta zaharberritzen ikasi dute. Gaur, azkenik, prest daude herdoildutako lata horiek ireki eta agian zinearen historia betirako aldatzeko. Eskularruz babes-tutako beren eskuetan dago.

### 3. SEKUENTZIA:

#### **BARRUAN – BILTEGIA – EGUNEZ**

Apalez betetako biltegi batean Pablo La Parra ikerlaria eta zine eskolako zortzi ikasle daude. Ikasleetako hiruk ar-

gazki albumak aztertzen dituzte mahai batean eserita. Eskularruak jarri berri dituzte. Beste hiruk, bakoitzak *Festival* aldizkariaren ale bat daukala, kontuz pasatzen dituzte orriak. Beste biak zutik daude arbela txuri baten parean. Batek bertan idazten ditu besteak esaten dizkion datuak. "Alice Guy Taldea!" esango du aldizkaria irakurtzen ari den ikasleetako batek eta gainontzekoak berarengana hurbilduko dira.

**Finantzazio-ereduak ere zinema dira: Oliver Laxek 2010ean 30.000 euroko diru-laguntza zuzena jaso zuen lehenbiziko film luzea egiteko. Aurten, epaimahaiaren saria jaso du Cannes-en**

*Zinemaldia 70. istorio posible guztiak* ikerketa proiektua garatzen ari den taldea da. Ia guztiak Komisariotza espezializaziokoak. Zinemaldiak zenbait urtetan Martuteneko biltegi batean gorde duen materiala ikertzen ari dira Zinemaldiaren 70. urteurrenean jendearentzako eskuragarri egon dadin. Proiektuaren lehenengo fase hau Transizioaren lehenengo urteen inguruan egitea erabaki dute, bai momentu historikoaren garrantziarengatik, baita aldatuta momentu bat izan zelako ere Zinemaldiaren izaeran.

Azken aurkikuntza liluragarria 1978 urtean antolatu zen *Emakumeek egindako zinea* izeneko ziklo bat da. Mirentxu Loyarte, Chantal Akerman, Agnès



Varda edo Věra Chytilová zinegileen pelikulak proiektatu ziren Donostian. Gainera, mahai inguru bat antolatu zen non, besteak beste, emakumeek egindako zineak forma edo lengoai zinematografiko ezberdin bat behar zuen sutsuki eztabaidatu zen.

"Alice Guy Taldea!". *Festival* aldizkarian Alice Guy Taldeak sinatutako idatzi bat aurkituko du ikasleetako batek: "Zinema egiteko andre talde bat eratzeko asmoa, andreek espresio eta komunikabide bakoitzaz jabetzeko konbentzimendutik dator. Gure taldeak zinemagile-autokontzientzia nahi du izan; geure baitatik kanporatu nahi genuke; irudimena, fantasia, gauzak gure erara nabaritu eta ikusi, eta kamera bidez komunikatu. (...) Gure helburu nagusia pelikula bat errealizatzea da, zerbait berria nabaritu ahal izateko, bai lan egiteko eran, bai mintzaeran".

Baina, nor ziren Alice Guy taldeko kideak? Proiektua garatzen ari diren ikasleak kalera atera beharko dira elkarriketak egitera eta garai horretan zikloa antolatu zuten Donostiako emakume asanbladako kideekin biltzera, hitz egitera, egin zuten guztian sakontzera.


Horrela, biltegi batean gordeta zegoen aldizkari batean aurkitutako hitzei jarraituz iritsi daitezke gaur egun aldarrikatuak izatea merezi duten iraganeko ahotsetara.

#### 4. SEKUENTZIA: **BARRUAN – CANNES-EKO ANTZOKIA – GAUEZ**

Jendez gainezka dago Canneseko antzokia. Pantaila izugarriak argi laranja zabalitzen du aurtengo Agnès Vardaren omenegindako kartelak bezala. *Un certain regard* (Halako begirada bat) sailaren sariak banatuko dituzte. Epaimahaiko bost kideak eszenatokian daude. Lehenengo saria: interpretazio onenari. Chiara Mastroianni *Chambre 212*-rengatik (Christophe Honoré). Txalo bero bat. Bigarrena. Zuzendari onena. Txalo bero bat. Hirugarrena. Epaimahaiaren aipamen berezia. Txalo bero bat. Laugarrena. Epaimahaiaren saria: Oliver Laxe *O que arde*-rengatik. Txalo bero bat. Galizieraz Canneseko historian parte hartu duen lehenengo pelikula. Txalo bero-bero bat.







Kontraesana dirudi pelikula batekin bukatzeak “eta, zinea pelikulak baino gehiago balitz?” galderari erantzuteko saiakera hau. Oliver Laxeren *O que arde* pelikularekin hain zuzen ere. Kontua da, *O que arde*-ren atzean Galiziako zenbait historia daudela. Kontua da, pelikula baten atzean lurralde oso baten kultura zinematografikoa dagoela. Galiziaren kasuan, NUMAX bezalako kooperatiba garaikide bat posible egin duen zine klubaren historiaren aldarrikapena, adibidez. Baita 2005. urtean Axencia Audiovisual Galegak martxan jarri zituen sortzaile berrientzako laguntza zuzenak ere. Oliver Laxek, besteak beste, 2010ean 30.000 euroko diru-laguntza zuzena jaso zuen neurri hauetarako bere lehenengo luzemetraia eginez (*Todos vós sodes capitáns*) eta bederatzi urte geroago, zinearen historia aldatuz, lehenengo aldiz entzun eta ikusarazi du galiziera Cannesen. Beraz, zinea pelikulak baino askoz ere gehiago bada. Zinea ikerketa, idazketa, irakurketa, neurriak, eztabaidak, elkarrizketak, oroimenak eta aldarrikapenak ere badira. Eta zinea, noski, pelikulak ere badira. ●





LIBURUA

# Abentura bizia



## ZANK & ZOE. MENDI BELTZEKO MUNSTROA

MIKEL VALVERDE

ILUSTRAZIOAK: MIKEL VALVERDE  
ITZULPENA: RAMON OLASAGASTI

ELKAR, 2019

### XABIER ETXANIZ ERLE

**Z**oe zortzi urteko neska da, eta gai da Zank bere txakurraren zaunkak ulertzeko. Bizikletan ibiltzea oso gustuko du, baita laguntza premia duenari laguntzea ere. Horregatik, beti saltsaren batean sartuta dabil". Hitz hauekin aurkezten zaigu liburu hasieran Zoe, Zank bere txakurrarekin batera liburu-ko protagonista nagusia.

Mikel Valverdek, aurretik *Rita*-rekin egin bezala, neskatala baten abenturak kontatzen dizkigu sail honetan (*Zank & Zoe* bilduma bat izango delako liburuak atera ahala), eta gatzetxoei hainbeste gustatzen zaien errealitatea eta fantasiaren arteko nahasketa darabil istorio bizi eta entretenigarrian murgiltzeko.

Valverdek gaur egun herri eta hirietan gero eta gehiagotan gertatzen den


arazo bat du abiapuntu istorio honetan; denda txikien krisia. Zoe eta Zank Tea andrearen gozo-dendara doazela hasten da kontakizuna, igandero egin ohi duten moduan bientzat "gozamina zen bisita" egitera doaz. Baina Tea andrea goibel dago, eta atzean kartel bat "Gozotegia ixtera goaz" dioena.

Gertakari horren aurrean Zoek eta bere familiak zerbait egitea pentsatzen dute, zerbait Tea andrearen gozotegia ezaguna izan dadin eta aurrera egin dezan. "Tea andreak bere gozotegiaren publizitatea egin behar du, baina modu berri-zailean!" aitonaen ideiatik abiatuta, eta ikusita Zoek duen indarra, abilezia eta trebezia bizikleta gainean, lasterketa batean parte-hartzea erabakitzen dute.

Liburuan zehar lasterketa hori

prestatzen eta korritzen duten bitartean jazotakoak biltzen dizkigu egileak (testuaren bidez, baina baita ere, eta ez bigarren mailan, ilustrazio ugari eta egokien bidez), hainbat gertakari eta pasadizo, batzuk maltzurak, beste batzuk umoretsuak bilduz, gertakari jositako lanean. Baina liburuari izenburua ematen dion *Mendi beltzeko munstroa*-k ere badu bere papera, eta ez txikia, kontu sozialak eta baita ekologikoak ukitzen dituen abentura honetan. Baina munstro hori nor den eta zergatik jokatzen duen jokatzen duen moduan jakiteko onena izango da Valverderen istorioan murgiltzea eta Zoerekin eta Zank txakur bizkorrekin gozatzea... beraiek Tea andrearen pastekin gozatzen duten bezala! ●





DISKOA

# Rock-and-rollaren orrazkera psikotikoena



## SCREAMERS AND SINNERS HYPNOSIA!

DIABLO RECORDS, 2019

IKER BARANDIARAN

**D**ena dago asmatuta, eta askok eta askok iraganekoari mozorroa jantzita berebiziko izaera bereizgarria ematen ahalegintzen dira. Horren guztia- ren aurrean nik lehenesten dut dagokion estiloa –ezaguna bada ere– bere egin eta sinesgarritasunez plazaratzea. Horixe egiten du Aretxabaleta eta Arrasateko kideak dituen Screammers and Sinners taldeak, 2013an punk, punk-Oi! eta surf-rock (Neallta Fola, Golpe de Estado eta Los Galerna) taldeetan aritutako hainbat lagunek sortutakoa.

Apustua ezohikoa izan zen eskualde honetan: psychobilly-a; hain zuzen ere, punk-etik eta iluntasunetik barra-barra edaten duen rockabillya. Taldea sortu eta urtebetera *Demon tales* diskoa kaleratu zuten beraien kabuz, eta

oso tarte laburrean atzerrian interesa jarri zuten taldean. Kontrabaxuaren eta bateria sarkor baten erritmo geldiezinaren pean kanteak hastapenetako rock-and-rolla berreskuratu, zikindu eta hauspotzen zuten axolagabeki. Garai horretan psychobilly giroko Earthquake (Bremen), Stomp (Paris) eta Meeting (Pineda) jaialdi handietan eman ziren ezagutzera.

2016. urtea taldearen mugarrria izan zen. Estudiora sartu ziren Arabako El Sacamantecas hiltzailearen omenezko –eta izen bereko– diskoa grabatzera. Mad Sin taldeko Andy Laaf-en gidaritzapean bateria-jolea aldatu eta punketik apur bat aldenuz 50eko hamarkadako rock-and-roll klasikoenean hartu zuten lurr. Erditze zaila izan zen, luzea, baina

doinu horretako zaleen gustukoa izan zen Belgikako Drunkabilly Recordsekin argitaratutako lana.

*Hypnosia!* lan berriarekin heldu dira orain eta disko honetan ere, 50eko hamarkadako rock-and-rolla da oinarri nagusia, kontrabaxuak eta bateriak arnasarik gabe gidatuta; eta alboan ditu surf, punk-rock, country zein swing ñabardurak maisuki gehitzen dion gitarrara, baita edozein talderen indarra eta emaitza biderkatzen duen saxo aberats eta askea ere. Ingelesez, euskaraz eta gaztelaniaz abestutako kanten artean, zirkoko eta B serieko filmen iruditeria dira nagusi. Horrez gain, Donna Dunen ahots ikaragarriak blaitu du *The sinner & the screamer*; eta MCDko Rockanek *A-68* ahaztezinari jarri dio ahotsa. ●



## Apaingarririk gabeko hardcore zuzena

ANDREA ZUBOZKI  
THE THIRD EYE

**B**rahBrah elkarteak beti ari da konzertuen antolatzen, gelditu gabe. Iparraldeko hardcore eszenako hainbat taldek osatzen duten kolektiboak sorpresa politak deskubriarazi dizkit azken urte hauetan, eta gaur begiak hetsirik noa antolatzen dituzten BrahBrah gauetara, zaflako batzuk biltzeko xedez. Eta hola izan nintzen maiatzaren 10ean Donibane Ziburuko Gaztetzera, lau talde guztiz desberdinen ikustera.

Gaualdia ALBA talde gazteak ireki du. Boskote hazpandarrak bere lehen diskoa egunean bertan plazaraturik, publikoak belarri finez egin dio harrera, eta harridura ere sortu dute oholtzara tronpeta jotzailea ekarriz. Doinu progresibo arinak eta riff astunak uztartuz, bi bateria jotzaileen jokoak espazioa utzi die gitarren testurei. *Moog* teklatuak kantariaren papera hartu du, melodia erakargarriak eskainiz. Tentsiotik etsipenera, kaosetik zorion idilikora, ALBA-

ren bidaiak iniziatikoak eraman nau.

Baina ez da gaualdiko sorpresa bakarra izan. Hondarribiko Horzdun taldearen *doom* bortitzez gozatu ondotik, airea hartzera joan naiz, freskagarria eskutan. Bat-batean gaztetzetik gizon bat atera da, gitarra elektrikoa eskutan: "The Third Eye gara, orain hasiko gara, eta ez dugu inoren aitzinean jo nahi, beraz sartu otoi!". Lagunok elkarri irriz begiratu diogu eta desmarxa polit honen parean erantzunik onena eman diegu: lehen lerroa joan gara.

Capbretongo taldeak *post-hardcore* erasokor eta gordina egiten du, bateria-jotzaileak, gitarra-jotzaile/kantariak eta baxu-jotzaileak osaturik. Betidanik *power-trio* taldeen zale handia izan naiz (Berri Txarrak, Muse, Nirvana...) eta aitortu behar dut aspaldi ez nuela hirukote hain indartsurik ikusteko paradarik ukan. Hiru izanki, instrumentu bakoitzak bere lekua atzeman du errazki. Baxuak gitarra-jotzaileari nota gore-

### THE THIRD EYE

Hurrengo emanaldia:  
Uztailak 4: Biarritzeko Atabal aretoa

netaraino igotzea ahalbidetu dio, soinu orokorrak indar izpirik galdu gabe. Reverbak lagundurik, giro aireztatuek ere beren lekua dute, batzuetan Gojira oroi-tarazi didate.


Ikusten da taldearen lehentasuna ahal bezain energia gehien eszenatikian erakustea dela. Gitarra-jotzailea, kantatzen ez duenean, ezin da geldirik egon. Kantatzera itzultzen denean, normalean musika tresnentzat erabiltzen den *Shure 57* mikroa bizpahiru aldiz zangotik erorarazi du. Kantariaren goiko boz bezain agresiboak taldearen rif-fei dimentsio handiagoa ematen die.

Taldea gazte-gaztea bada ere, pariatuko nuke The Third Eye-ko kideek oholtza gaineko esperientzia luzea dakartela, hain menperatua izan da eskaini diguten kontzertua. Taldeak kontzertu bat emanen du Biarritzeko Atabal aretoan uztailaren 4an, Birds In Row eta Decibelles taldeekin batera, berriz ere BrahBrah kolektiboak antolatuturik. ●





# Hitz gezidunak

ANTOLATU- RIKO PLAN ARRISKU	FINANTZENA MODU ATZIKIA	HEGAZTIEN GORPUTZA- REN KANPO- ESTALKIA		ZUHAITZ MOTA GAIZKATAREN ARRAUTZAK	KIZKUR ORLEGIAK	ERASOKETA ABERATS BIHURTU
TELEFO- NOAREN SOINU KOBALTOA				LORE MULTZO ZINTZILIKAR- RIA HARTU		
	AMERIZIOA ZERBAITEN EZAGUERA EMATE		DESAGERTU- TAKO MUSIKA TALDE KATEGORIA, NEURRI	PERTSO- NAIAREN ABIZENA ORTOGRAFIA KEINUA		
BIZITASUNA ADIERAZTEN DUENA FALTSU					LEHENGO OGERLEKO HAIZE INSTRUMEN- TUA	
		IZAN EZIK, SALBU ITSASOKO UREN HIGIDURA				AIPATURIKO ARTIKULU JOSTEAN, HATZEAN JARTZEN DA
PIL-PILEAN PRESTATZEN DEN ARRAIN	MAGO APIAKO HERRITAR			HATS, USAIN TXAR NEKAGARRI		OIHUKA, GARRASIKA
					ASPERTU, GOGAITU PERTSO- NAIAREN IZENA	
PARRASTAKA HASERREA, AMORRUA						OIHAL FIN ETA GARDEN PAUSALDI (ALDERAN- TZIZ)
			TXIPIROIA- REN ANTZEKO MOLUSKUA TXO!			AZKEN BOKALA IRIDIOA
ATOIAN ERAMAN GEHITZEKO PARTIKULA				DOAN BYTE		
		NORABAIT				

## Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1 ETIK 9 RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	7	9				5		
		8		7	2		3	9
	9	4						8
		2	4		5	3		
3						6	9	
5	4		3	6		8		
		7				9	1	

## 5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

- Jokaldia, partida
- Lapur, litxarrero
- Australiako ugaztuna
- Oiloaren ar heldu
- Azkoitiako abeslaria


## EBAZPENAK

2	7	9	8	1	3	5	4	6
7	9	8	1	3	5	4	6	2
5	4	1	3	6	9	8	2	7
9	8	3	7	2	1	4	6	5
3	1	5	2	8	7	6	9	4
8	6	2	4	9	5	3	7	1
7	9	4	1	3	6	2	5	8
1	3	6	9	5	4	7	8	2
4	5	8	6	7	2	1	3	9
5	4	6	9	8	1	3	5	7

5X5:

E	R	E	N	O	N	E	R	E
A	V	A	N	O	N	E	R	E
R	A	R	A	R	A	R	A	R
V	A	V	A	V	A	V	A	V
E	R	E	N	O	N	E	R	E
R	A	R	A	R	A	R	A	R
V	A	V	A	V	A	V	A	V
E	R	E	N	O	N	E	R	E
R	A	R	A	R	A	R	A	R
V	A	V	A	V	A	V	A	V
E	R	E	N	O	N	E	R	E
R	A	R	A	R	A	R	A	R
V	A	V	A	V	A	V	A	V
E	R	E	N	O	N	E	R	E
R	A	R	A	R	A	R	A	R
V	A	V	A	V	A	V	A	V

# Amel Zaaza

ARRAZISMOA JOMUGAN



## IZENAREN ZAMA

“Duela bost urte iritsi nintzen Quebecera. Unibertsitatetik pasata, hamabost urteko lan esperientziarekin, lana bilatzen hasi nintzen. Lanik ez nuen aurkitzen, desesperazioa adierazi nion lehen bi urteetan jarraitzen ninduen enplegu kontseilariari. “Arazoa ez da zure curriculum, zure izena baizik. Alda ezazu eta ikusiko duzu”. Txilekoa zen, etorkina bera ere. Izena aldatu eta ondoko astean lan elkarrizketak nituen. Orduan hasi nintzen militatzen”.

## “Ikuspegi holistikoa ezinbestekoa dugu arrazismoa desagerrarazteko”

Arrazismoaz hitz egin beharra dago, arazoa sistemikoa delako eta ez doalako gutxituz. Helburu horrekin elkartu dira zapalkuntza hau pairatzen duten hainbat pertsona eta *11 brefs essais contre le racisme, pour une lutte systémique* (11 saiakera labur arrazismoaren kontra eta borroka sistemiko baten alde) liburua plazaratu berri dute. Sektore ugari begira jarri dira, arloz arlo aldaketak ekartzeko behar gorria azpimarratuz. Zaaza dugu liburu kolektibo honen zuzendaria.

 JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

 BRUNO SANTOS

### Arrazismoaren kontrako borroka ere sistemikoa izan behar dela diozue.

Arrazismoaren problematika ezin dugu angelu bakar batetik begiratu. Usu horretan dabilta politikariak, demagun lan esparruko diskriminazioei begira jarriko dira. Alferrrikakoa da, inoiz ez dugu arazoa konponduko ez baldin badiogu sistema osoari begiratzeko eta ez bagara sustraietara joaten. Ikuspegi holistikoa ezinbestekoa dugu arrazismoa desagerrarazteko.

### Identitatearen defentsaren diskurtsoa hor dugu.

Diskurtso maltzurra dugu. Quebectar identitate zuri eta monolitiko horretan hesitzen dira. Faltsua da, betidanik egon dira hemen beltzak, Frantzia Berriaren garaikoa da. Esklabo beltzak bazeuden eta erresistentzia ere hor zegoen. Betidanik egon da arrazismoa salatzen mugimendua. Kontua da ezikusiarrena egiten ari direla, ez diotelako arazoari parez pare begiratu nahi. Amnesia kolektibo batean gaude.

### Besteak beste, sindikalismoari begira jarri zarete. Nola izan daiteke sindikatu bat benetan antiarrazista?

Ni ez nator sindikalismotik, baina Marc-Edouard Joubertek bere kapituluaz azaltzen digunez, ez dago borroka antiarrazistarik mugimenduan sindikalistan. Langileen eskubi-deen historiari begiratzeko badiogu, arrazializazioaren arabera arras ezberdinak izan dira lorpenak. Botere guneetako ordezkari biziki inportantea dela dio. Esfera hauetan soilik pertsona zuriak baldin bada, eronka antiarrazistei buruzko sentsibilitate edota ulermenik ezin du ukan sindikatuak. Kolorezko pertsonok goi esparruetara hurbiltzeko dugun ezintasunari buruz gogoetatzeko gomita luzatzen die sindikatuak.

### Zure kapituluaren komunikabideak aipatzen dituzu.

Komunikabideak etxe guztietara iristen dira eta bideratzen duten irudia





"HAIEN BURUA EZKERTIARTZAT DAUKATEN HORIEI BEREN IZAERARI SO EGITEKO DEIA LUZATZEN DIET, BEREN BORROKA INTERSEKZIONALITATETIK GOGOETATZEKO GOMITA EGITEN DIET".

arazo larria da. Nirekin gurutzatu diren pertsona batzuek ni ninduten ezaguturiko lehen musulmana; alta, ideia edota irudi oso argi bat daukate komunitate horri buruz. *Mainstream* komunikabideek bideratutako diskurtsoa errepikatzen ari dira; arrazismo sistemikoaren oinarria horrela eraikitzen da, eremu kognitibotik igaroaz. Komunikabideetan ere ordezkartza handiagoa behar genuke, haien erabaki guneean, kazetarien artean eta plazaratzen duten errealitateetan. Beldurrean oinarritzen dira, enpresak %100 kapitalistak izaki horrek duelako funtzionatzen, horrek duelako dirua ekartzen. Joko zinez arriskutsua dute, epe laburrean dirua baldin badakar ere, epe ertain eta luzean jendartearen oreka duelako mehatxatzen.

#### **Ardura handia dute.**

Ikaragarri handia. Ahots arrazista hedatzen ari dira. Iritzien arteko eztabaida gisa saltzen digute, baina ez, beren izeenez izendatu behar dira gauzak: ahots arrazista horiek intolerantzia dira.

#### **Ezkerrari buruz ere kritiko zara.**

Ezkerrarekin garatu naiz, borroka esparru komunetan egon gara, izan pobrezia aurrerako borroketan ala feminismoan. Kontua da arrazismoaren aurrerako borroketara usu ez direla agertzen ustezko aliatu horiek. Arriskutsua da, eskuinaren diskurtsoa geroz eta gogorragoa den garai honetan ezkerre ez baldin bada mugitzen bidea zabalik uzten diolako faxismoari. Haien burua ezkertiarantz daukaten horiei beren izaerari so egiteko deia luzatzen diet, beren borroka interseksionalitate gogoetatze gomitak egiten diet. Borroka feminista, klase borroka eta antiarrazismoa, hiruak elkar lotuta doaz.

#### **Nola ikusten duzu mugimendu feminista?**

Gauzak mugitzen diren esparru bat baldin badago feminismoarena da. Quebecoko Emakumeen Federazioan inplikatu naiz eta arrazializatuen eta autoktonoen ahotsak batzen dituen Paroles de Femmes Fundazioaren presidentea ere banaiz. Geroz eta anizta-

sun gehiago sendi da mugimendu feminista, eta noski, ez da gatazkarik gabe egiten: soilik generoan oinarritzen diren feministen eta beste zapalkuntza sistemak kontuan hartzen dituzten artean ezadostasunak daude. Gatazka horiek mugimenduaren eraldaketaren sintoma ere badira nonbait, ez da txarra. Beste borroka esparruetan baino urrunago gara feministok. Aspaldian hitz egiten da interseksionalitateaz eta ikuspegi hau benetan gauzatzeko asmoz dabilta egitura feminista geroz eta gehiago. Dena dela, feminismoa betidanik izan da mugimendu sozialetan abangardiaria.

#### **Osasuntsu ote da borroka antiarrazista?**

Galdera zaila duzu. Uste dut erantzuna liburuan daukazula. Dirudi mugimendu gisa ez garela aitzinatzen, baina alde guztietatik egiten diren inizatibak bildu eta hauei begira jarriz erran daiteke borroka aurrera doala. Kontuz, militantei esker da, nahikeri politikoa male-ruski ez delako batere sendi. ●



## NASak dio bizitza inteligentea aurkitu duela Maite Esporrinen buruan



“Oraindik lan hipotesi bat da eta ezin dugu ezer guztiz ziurtatu, baina baliteke orain arte mortua zirudien eremu horretan zerbait bizirik egotea”, adierazi dute NASako bozeramaileek aste honetan publiko egin duten ohar batean. Iragarpenak polemika eragin du komunitate zientifikoan, izan ere, Esporrin hauteskunde gauean “agur Asiron, agur!” oihu-

ka entzun ostean, komunitate zientifiko ia osoa bat etorri zen: buru horretan adimendun ezer aurkitzea ezinezkoa zela esan zuten. NASak bere oharrean tentu handiz jokatu du, argituz “orain arteko ebidentzia guztiek kontrakoa pentsarazi digutela”, baina Esporrinen buru gainean lur hartzea lortu duen espazio-zundak ezohiko datuak eman dituela. ●

### SAREAN ARRANTZATUA

Eskerrik!



16.08 - 2018 mai. 9

### XXI. mendeko lana



KEPA ETA XERPA, BILBOKO ITSASADARREAN JOLASEAN.

## Maskotatzat krokodiloa duen gizasemeak: “Lasai, ez du ezer egiten”

Kepa Berezarra bilbotarrak, goizero bezala, Xerpa krokodiloa beharrak egitera atera du Abanto ingurura. Runner jendeak mesfidati begiratzen dio atzetik segika hasten zaien animalari, baina Kepa patxadaz zuzentzen zaie: “Lasai, ez du ezer egiten, soilik jolastu egin nahi du!”. Xerpa ez ote lukeen loturik eraman behar galdetu diogu: “Keba, zintzo-zintzoa da-eta, pertsona asko baino gehiago. Nik, adibidez, nahiago dut berarekin poteatu ingu-

ruko jendearekin baino; Athletic-ek jokatutako azken partidaz edota lantokiko mobidez ez dit matrakarik ematen, ateratakoea edan eta esandakoea egin, zoragarria da”. Krokodiloaren gorotza, gainera, ongarrri ederra omen da. “Horregatik ez ditut haren mokordoak jasotzen, ezta hurrentzako parkeetan uzten dituenak ere. Demonstratua dago ume batek deskuidoan ahora eramanez gero, hortz sendoagoak izango dituela etorkizunean”. ●





***Bizi nahi duen herria!***

Jende gehiagori  
ahotsa emateko,  
lagun gehiagorengana  
heltzeko eta  
eragiten jarraitzeko  
**EGIN ARGIAKOA!**





adukazue?

**Goazen!**

*Barkatu,  
zer ordu da?*

ngoia  
da  
dez?

**Kafesnea,  
mesedez...**

**Maialen naiz**

**ESAN?**

*Egun*

**Etorriko  
haiz?**

*lehen hitza...*  
**euskaraz**

**Mesedez,  
laguntzarik  
bai?**